

EAEko ekonomiaren urteko txostena 2022

Informazio hau honako helbide honetan dago eskuragarri:

<http://www.ogasun.ejgv.euskadi.net/r51-341/es>

Harremanetarako helbide elektronikoa eta telefonoa:

economia@euskadi.eus

[945-01.90.77](tel:945-01.90.77)

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Ekonomia eta Ogasun Saila
Donostia-San Sebastián, 1 – 01010 Vitoria-Gasteiz

Egilea: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritza

Legezko gordailua: VI 501/06

ISSN: 1887-1526

Aurkibidea

0. Ekonomiaren egoera laburbilduta	1
1. Ekonomia Ukrainako gerraren urtean	13
1.1 EAEko ekonomiaren ingurunearen portaera	13
1.2 Euskadiren bilakaera ekonomikoa	23
2. Ekonomia sustatzeko politika	70
2.1 Inflazioari aurre egiteko moneta politika	70
2.2 Zerga politika hedakorra.....	82
2.3 Euskal sektore publikoaren erantzuna	87
3. Etorkizuneko erronkak.....	112
3.1 Garapen jasangarrirako helburuak (GJH)	112
3.2 Next Generation EB programaren aukerak	118
3.3 Ekonomiaren deskarbonizazioa	127
3.4 Belaunaldien arteko erreleboa	136
3.5 Adimen artifiziala eta digitalizazioa	143
3.6 Soldata desberdintasuna murriztea	150

Taulen aurkibidea

1. Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak.....	2
2. BPG errealaren bilakaera.....	3
3. EAEko taula makroekonomikoa.....	7
4. EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait.....	10
5. Munduko ondasunen merkataritza eremuka.....	15
6. Ekonomiaren aldagai nagusiak.....	21
7. Lehen arloko adierazle nagusiak.....	29
8. EAEko industriaren BEGaren bilakaera.....	30
9. Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak.....	33
10. Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak.....	34
11. Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka.....	35
12. Errenten adierazleen bilakaera.....	37
13. Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera.....	38
14. Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera.....	38
15. Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn.....	39
16. EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga.....	43
17. Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena.....	45
18. EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria.....	46
19. Enplegua sektoreka.....	52
20. Enplegua erregulatzeko EAEn baimendu diren espedienteak.....	55
21. Erregistratutako lan kontratuen bilakaera.....	61
22. Kontsumoko prezioen indizearen banaketa.....	62
23. EAEko kontsumo prezioen indizea.....	63
24. EAEko industriako prezioen indizea.....	66
25. Hitzarmenetan adostutako soldata igoerak.....	67
26. Banku zentralen interes tasak.....	72
27. 10 urterako zor publikoaren errendimendua.....	73
28. Estatuan onartu diren zerga politikako neurri nagusiak familiei eta enpresei laguntzeko, energia krisiari eta inflazioari erantzuteko.....	86
29. Euskal administrazioek hartutako neurri nagusiak.....	87
30. Zerga itunduen bilakaera.....	90
31. PERTEen indartzea (milioi eurotan).....	120
32. Maileguren kontura finantzatutako funtsak (milioi eurotan) (I).....	121

33. Maileguen kontura finantzatutako funtsak (milioi eurotan) (II).....	122
34. Next Generation EU funtsen eragin makroekonomikoaren azken kalkuluak.....	124
35. Euskadiko eskari elektrikoaren banaketa, energia iturrien arabera.....	133
36. Enplegu aukera garbiak sektoreka.....	140
37. Enplegu aukera garbiak, lanbidearen arabera.....	141
38. Enplegu aukera garbiak prestakuntzaren arabera.....	142
39. Gaitasunak automatizatzeko erraztasuna eta zailtasuna.....	145
40. Aldaketa teknologikoak lanbideetan duen eragina.....	148
41. Aldaketa teknologikoaren eragina adar sektorialetan.....	149

Irudien aurkibidea

1. EAEko eta munduko ekonomien hazkundea. Urte arteko aldakuntza tasak.....	1
2. BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn.....	5
3. EAEko BPGari eginiko ekarpenak.....	6
4. Lehengai energetikoen bilakaera. Hileko batez bestea.....	14
5. Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak.....	17
6. Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak.....	18
7. Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak.....	20
8. Inflazioaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasak.....	22
9. BPG biztanleko. 2019-2022.....	24
10. BPG biztanleko. EAP.....	25
11. BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (I).....	26
12. BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (II).....	27
13. BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (III).....	28


14.	EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.	31
15.	Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak.....	36
16.	EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko.	40
17.	Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (I).	41
18.	Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)	42
19.	EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak.....	48
20.	Partaidetza tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn.....	50
21.	Enpleguaren bilakaera EAEn. Pertsonak.....	51
22.	Enplegu tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn	53
23.	Aldi baterako enplegu erregulazioko egoeran dauden pertsonen bilakaera	54
24.	Goi mailako hezkuntza (30-34 urte bitarteko taldea)	56
25.	Enpleguaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2022. urtea	56
26.	Aldi baterako enplegu tasa soldatapekoekiko.....	57
27.	Lanaldi partziala duten landunek okupatu guztiekiko.....	58
28.	Langabezia tasaren bilakaera EAEn	58
29.	Langabezia tasaren bilakaera sexuaren arabera EAEn	59
30.	Langabeziaren bilakaera hezkuntza mailaren arabera. 2022. urtea.....	60
31.	KPIaren bilakaera.....	64
32.	EAEren eta Eurogunearen arteko inflazio tarte. 2022ko batez besteko balioak	65
33.	Lan kostu osoa langile bakoitzeko 2019-2022. Urte arteko aldakuntza tasak	67
34.	Lan kostu osoa sektoreko langile bakoitzeko. Urte arteko aldakuntza tasak.....	68
35.	Lan kostu nominala orduko	69
36.	EBZk euroarentzat ezarritako truke tasa ofizialak. Moneta unitateak euro bakoitzeko	76
37.	Gordailuen bilakaera. Milioi euro.....	78
38.	Kredituen bilakaera	79
39.	Etxebizitzen hipoteken bilakaera. Milakoak	80
40.	Interes tasen bilakaera	81
41.	Defizitaren eta zor publikoaren bilakaera	82
42.	Gobernuek familiak eta enpresak energia krisitik babesteko esleitutako funtsak.....	84
43.	Zerga nagusien diru bilketa 2005-2022. BPGaren %a.....	91
44.	Eusko Jaurlaritzaren eragiketa arrunten bilakaera 2005-2022. BPGaren %a	93
45.	Eusko Jaurlaritzaren aurrezkoa, kapitaleko gastua eta defizita 2005-2022. BPGaren %a.....	94
46.	Eusko Jaurlaritzaren zorpetze beharraren analisia 2005-2022. BPGaren %a.....	96
47.	Zorraren kostua eta bizitza	97
48.	Foru aldundien aurrezkoa, kapital gastuak eta defizita 2005-2022. BPGaren %a	98
49.	Foru aldundien zorpetze beharraren analisia 2005-2022. BPGaren %a.....	99
50.	Administrazio Autonomoaren zor publikoaren bilakaera (gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera). BPGaren %a	100
51.	Eusko Jaurlaritzak gauzatutako gastuaren bilakaera (2005-2022). BPGaren %a.....	102

52. Osasunean egindako gastu publikoaren bilakaera	105
53. Hezkuntzan eginiko gastu publikoaren bilakaera. BPGaren %a	106
54. Eskola adineko biztanleriaren bilakaera 2021-2036. Milakoak	107
55. Gizarte prestazioetan eginiko gastuaren bilakaera. Milioi euro	108
56. Gastu publikoaren bilakaera I+Gn. BPGaren %a	110
57. Funtzio bakoitzak parte hartzen duen GJHen kopurua	113
58. GJH bakoitzarekin lerrokatutako funtzioen kopurua.....	114
59. GJHetarako aurrekontu ekarpena. Mila euro	115
60. Aurrekontuen ekarpena 5Pei. Milioi euro	116
61. PRTRren mugarren eta helburuen egutegia	119
62. Euskadiri esleitutako MRR zenbatekoaren banaketa	123
63. Barne Produktu Gordina. 2020-2026.....	125
64. Lanpostuen bilakaera. 2020-2026	126
65. BPG errealaren eta elektrizitate eskariaren bilakaera. 2011. urtea = 100	128
66. Elektrizitate kontsumoa BPG errealaren unitate bakoitzeko eta biztanleko. 2011. urtea=100	129
67. Elektrizitate kontsumoaren banaketa jatorriaren arabera.....	131
68. Instalaturako potentzia eta energia berriztagarrien bidezko sorkuntza alderatzea.....	132
69. Erregaien kontsumoaren bilakaera Euskadin	134
70. Erregai fosilen kontsumoa BPG errealaren unitate bakoitzeko eta biztanleko. 2011. urtea=100	135
71. 65 urtetik gorako biztanleak. 2022 (%).....	136
72. Euskadiko biztanleria, betetako adin taldeen arabera	138
73. Biztanleria potentzialki aktiboaren proiektzioak	139
74. Lanpostuetan neurtutako AAren eraginaren simulazioa.....	146
75. Batez besteko eta erdiko soldaten bilakaera EAEn. 2008. urtea = 100	150
76. Soldataren bilakaera EAEn. Soldata arrakala. 2008. urtea = 100	151
77. Soldata arrakalaren bilakaera adinaren arabera. 2008. urtea=100.....	152
78. Soldata arrakalaren bilakaera lanbideen arabera. 2008. urtea=100.....	153
79. Soldata arrakalaren bilakaera sektore ekonomikoaren arabera. 2008. urtea=100.....	154
80. Batez besteko soldataren bilakaera EAEn. 2008. urtea=100	155
81. Soldaten bilakaera EAEn. Pertzentilen arabera. 2008. urtea=100	156
82. Soldaten bilakaera EAEn. 10 pertzentila. 2008. urtea=100	157
83. Soldaten bilakaera EAEn. 90 pertzentila. 2008. urtea=100	158

0. EKONOMIAREN EGOERA LABURBILDUTA

azko urtea, 2022, oso zaila izan zen munduko ekonomiarentzat. Herritarren txertaketa masiboarekin lortutako hobekuntzak gorabehera, omicron aldaera azkar hedatu zen eta osasun zerbitzuak tenkatu zituen. Horrez gain, Errusiak Ukraina inbaditu zuen, eta horrek zigor ekonomikoak ekarri zizkion herrialde erasotzaileari, ekoizpen kateak hautsi zituen, lehengaiak garestitu egin ziren, energia krisia agertu zen eta inflazioa handia izan zen. Baldintzatzaile horiek guztiak hor egon arren, munduko ekonomiak bere BPGa %3,4 handitzea lortu zuen, erosteko ahalmenaren parekotasunean neurtuta, eta %3,0 dolarrarekiko truke tasaren arabera neurtuta.

EAEko eta munduko ekonomien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak
1. irudia



Iturria: Eustat eta NDF.

2022an, munduko ekonomiaren hazkundera (%3,4) aurreko urtekoa (%6,3) baino nabarmen txikiagoa izan zen; izan ere, azken hori urte atipiko batekin (2020) alderatu zen, covid-19aren pandemiak ekonomiaren bilakaera baldintzatu baitzuen. Hala eta guztiz ere, 2022ko tasa ez da oso desberdina azken lau hamarkadetako batez besteko balioekin alderatuta, guztiak %3,0 eta %4,0 artekoak baitira. Ildo horretan, garrantzitsua da adieraztea Nazioarteko Diru Funtsak (NDF) bere azken aurreikuspen txostenean adierazi zuela bost urteko epean munduko ekonomiarako espero zen hazkunde tasa %3,0 ingurukoa izango dela.

Nahiz eta 2022an, adierazi den bezala, batez besteko hazkunde esanguratsua lortu bazen ere, haren hiruhilekoko bilakaera pandemia kontrolatzeko hartutako murrizketak amaitu ondoren sortutako eskaera handiaren ondoriozko arazoek metaketak eta Ukrainaren inbasioaren ondorio ekonomikoak baldintzatu zuten. Zehazkiago adierazita, herrialde garatuen multzoak, ELGAN sartzen baitira, %4,6ko urte arteko aldakuntza tasarekin hasi zuen urtea, baina hazkunde erritmoa %1,4ra moteldu zen laugarren hiruhilekoan. Ekoizpen kateen haustura, lehengaien eta energiaren garestitzea, horrek guztiak eragin zuen inflazio handia eta moneta politikaren erantzuna, inflazioa kontrolatzeko interes tasen ondoz ondoko igoeren bitartez martxan jarria, dira herrialde garatuen hazkundearen intentsitate galera hori azaltzen duten arrazoi nagusietako batzuk.

Ekonomia eremuen pisua, hazkundera eta ekarpenak
1. taula

	Pisua	Hazkundera	Ekarpena		Pisua	Hazkundera	Ekarpena
Ekonomia aurreratuak	41,7	2,7	1,1	Garatu gabeak	58,3	3,9	2,3
AEB	15,6	2,1	0,3	Txina	18,5	3,0	0,5
Eurogunea	12,0	3,5	0,4	India	7,3	6,8	0,5
Japonia	3,8	1,1	0,0	Errusia	2,9	-2,1	-0,1
Erresuma Batua	2,3	4,0	0,1	Brasil	2,3	2,9	0,1
Kanada	1,4	3,4	0,1	Mexiko	1,8	3,1	0,1
Besteak	6,6	3,1	0,2	Besteak	25,5	4,7	1,2

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, NDFren datuetan oinarrituta.

Inflazioak azterketa espezifikoa merezi du, 2022ko hainbat hilabetetan KPIaren urte arteko aldakuntza tasa %10etik gorakoa izan baitzen, bai ELGA osoan, bai herrialde adierazgarrienetako batzuetan. Txertaketa masiboak biztanleria babesten zuen heinean ekonomiak irekitzeak ondasunen eta zerbitzuen gehiegizko eskaria ekarri zuen berekin, eta horrek eskaintzaren ahalmena gainditu zuen; beraz, prezioak igo egin ziren. Zehazki, 2020. urtearen amaieran, Alemaniako eta Frantziako kontsumo prezioek tasa negatiboak izan zituzten, baina urtebete geroago, 2021eko abenduan, Alemanian KPIak %4,9ko tasa ezarri zuen, eta ELGA osoan %6,5ekoa. Ukrainaren inbasioak prozesu hori areagotu zuen eta balio handienak Alemanian (%8,8) 2022ko urrian eta azaroan, AEBetan (%9,1) urte horretako ekainean, eta ELGAN (%10,7) izan ziren urrian. Eskaria eta, horrekin batera, inflazioa geldiarazteko hartutako interes tasen igoerek arrakasta apala izan dute, eta lerro hauek idazterakoan KPIak nabarmen gainditzen du banku zentral nagusien helburua (%2,0). Hala, AEBetan %4,0 ingurukoa da oraindik, eta Alemanian eta ELGAN, berriz, %6,0tik gora dago kokatuta.

BPG errealtaren bilakaera

2. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Munduko ekonomia	3,8	3,6	2,8	-2,8	6,3	3,4
Herrialde garatuak	2,5	2,3	1,7	-4,2	5,4	2,7
AEB	2,2	2,9	2,3	-2,8	5,9	2,1
Japonia	1,7	0,6	-0,4	-4,3	2,1	1,1
Erresuma Batua	2,4	1,7	1,6	-11,0	7,6	4,0
Eurogunea	2,6	1,8	1,6	-6,1	5,4	3,5
- Alemania	2,7	1,0	1,1	-3,7	2,6	1,8
- Frantzia	2,4	1,8	1,9	-7,9	6,4	2,5
- Italia	1,7	0,9	0,5	-9,0	7,0	3,7
- Espainia	3,0	2,3	2,0	-11,3	5,5	5,5
- Euskadi	2,8	3,1	2,2	-9,6	5,9	4,4
Garapen bidean daudenak	4,7	4,7	3,6	-1,8	6,9	4,0
Txina	6,9	6,8	6,0	2,2	8,4	3,0
India	6,8	6,5	3,9	-5,8	9,1	6,8
Errusia	1,8	2,8	2,2	-2,7	5,6	-2,1
Brasil	1,3	1,8	1,2	-3,3	5,0	2,9

Iturria: NDF eta Eustat.

Inflazioaren aurkako borroka bereziki bizia izan da AEBetan. Herrialde horretan, ondasunen eta zerbitzuen eskari handia langabezia tasa baxuak eta bete gabeko lanpostu hutsen kopuru handiak tentsionatutako lan merkatu bati gehitu zitzaion. Herrialde horretan, interes tasak %0,0–%0,25 ziren urtearen hasieran, eta %5,0–%5,25eraino igo dira, moneta baldintzak asko gogortu baitira. Ekonomiaren hazkundearen gaineko eragina nabarmena izan da, eta BPGaren aldakuntza tasak moteldu egin ziren, lehen hiruhilekoan %3,7 izatetik laugarrenean %0,9 izatera igaro arte, nahiz eta 2023an nolabaiteko gorakada lortu duen (%1,8).

Europako Banku Zentralak beranduago eta indar gutxiagorekin erantzun zion inflazioaren igoerari. 2016tik aplikatzen zen %0,0tik %0,5era igaro zen uztailan eta %3,75era iritsi da gaur egun, baina erakundearen mezuen arabera, hurrengo bileretan gora egingo du berriro. Eurogunearen hazkundera geldiarazi egin dute moneta politikako erabaki horiek, lehen hiruhilekoan erregistratutako %5,5etik laugarrenaren %1,8ra, eta 2023aren hasieran apaltzeko joera luzatu egin da (%1,0). Hiruhilekoen arteko aldakuntza tasak nuluak edo negatiboak izan dira azken hiruhilekoetan, eta, beraz, atzeraldian sartzeko aurreikuspenak areagotu egin dira, baina iritzi orokorra da ez dela oso sakona izango eta laster igaroko dela.

Urteko batez bestekoan, euroaren eremuko herrialde nagusi guztiek hazkunde esanguratsuak eta BPG potentziala baino handiagoak izan zituzten 2022an. Hala ere, urtean zehar eta 2023aren hasieran bizi den moteltzeak zalantza batzuk uzten ditu etorkizunari buruz. Hala, Alemaniak %1,8ko batez besteko tasa izan zuen, eta 2022ko lehen hiruhilekoko %3,5etik 2023ko aldi bereko -%0,5era jaitsi zen. Nazioarteko ingurunearen zailtasunek arrastoa utzi dute herrialdeko industrian, ezin izan baitu gora egin. Frantziak %2,6ko tasa izan zuen urteko batez bestekoan, lau puntu baino gehiagoko apaltzarekin (hasierako %4,8tik laugarren hiruhilekoko %0,6ra), eta 2023aren hasieran pixka bat hobetu bada ere (%0,9), herrialdean egin diren grebak hazkundearen oztopo izango dira. Azkenik, Espainiak irudi dinamikoagoa eskaintzen du, zerbitzuen berreskuratze azkarrean oinarrituta. Batez beste, %5,5 hazi zen 2022an, 2021eko datua berdinduta. Apaltzea ere nabarmena izan zen, baina 2023ko lehen hiruhilekoan gora egin du, %4,2ra iritsi arte.


Garatzeko bidean dauden ekonomiek berezko ezaugarriak erakutsi zituzten 2022an. Hala, Txinak oso politika zorrotza mantendu zuen pandemiaren aurkako borrokan, mugikortasunerako murrizketa handiekin, eta herrialdeko BPGaren igoera %3,0ra mugatu zuen, birusa iritsi aurretik ohikoak ziren %6,0tik gorako zifretatik urrun. Bestalde, Errusiak bere BPGa %2,1 gutxitu zuen, mendebaldeko herrialdeek ezarritako zigorren ondorioz. Bestalde, Indiak (%6,8) dinamismo handiko irudia erakutsi zuen, pandemiaren aurreko urteetan lortu ohi zituen erritmoetara itzultzen duena.

EAEko ekonomiak herrialde garatuentzat deskribatu denaren antzeko bilakaera izan zuen, baina bizitasun handiagoarekin. Zehatzago adierazita, urteko batez besteko hazkundera %4,4koa izan zen, munduko ekonomia baino puntu bat handiagoa eta ELGAko batez bestekoa baino 1,7 puntu handiagoa. Hazkunde horri esker, EAEko ekonomiak pandemia hasi aurreko BPG errealaren maila ia osorik berreskuratu du. Beraz, susperraldia V eran gertatu da, eta bi urtean bakarrik. Jokaera hori urrun dago 2008-2009ko Atzeraldi Handiaren ondoren finantza krisi horren aurreko mailara itzultzeko behar izan ziren zortzi urteekin.


Enpleguaren bilakaera ere positiboa izan zen 2022an, urteko batez besteko %3,1eko hazkunderarekin, eta horrek esan nahi du lanaldi osoko 30.000 lanpostu baliokide inguru sortu zirela, guztira milioi bat enplegu inguru lortzeko. Kasu horretan, azken bi urteetako susperraldia BPGak izan duena baino are biziagoa izan da, eta 2022an lortutako mailak nabarmen gainditzen du hiru urte lehenago zegoen enplegu maila. Hala eta guztiz ere, epe luzeagoko ikuspegi batek erakusten du, hain zuzen ere, 2022an lortu zela 2008an zegoen enplegu mailara itzultzea. Beraz, enpleguaren arloan hamalau urte behar izan dira Atzeraldi Handiaren aurreko mailara berriro itzultzeko.

BPG errealaren eta enpleguaren bilakaera EAEn
2. irudia

BPG 2008=100



Enplegua 2008=100




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

EAEko ekonomiaren hazkundera, ohi den bezala, barne eskariaren bizitasunean oinarritu zen, BPGaren hazkunderari gutxi gorabehera 2,7 puntuko ekarpena egin baitzion. Hala eta guztiz ere, urte horretan nabarmendu beharreko ezaugarria kanpo saldoak egin zuen ekarpen azpimarragarria da, 1,5 puntutik gorakoa izan baitzen. Normalean, kanpoko saldoak portaera neutroa erakusten du EAEko ekonomian, ekarpenak, zeinu batekoak zein bestekoak izanda ere, hamarren gutxi batzuetakoak izaten baitira, esportazioen ekarpen garrantzitsuak antzeko tamainako inportazioen ekarpenekin konpentsatzen baitira. Zentzu horretan, 2022an eskuratu zen saldoa atipikoa da, nahiz eta horrelako egoerak ere bizi izan ziren Atzeraldi Handian, barne eskari ahuleko testuinguru batean, gaurkoarekin zerikusirik ez duena.


EAEko BPGari eginko ekarpenak
3. irudia

Barne eskaria



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Kanpo eskaria



2008 2009 2010 2011 2012 2013 2014 2015 2016 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuak erabilia.

Hain zuzen ere, Euskadiko barne eskariak 2009-2013 aldian izan zituen beherakaden aurrean, 2022an agregatu makroekonomiko horrek %2,7ko batez besteko hazkundera izan zuen, hiruhilekoko bilakaerak profil egonkor samarrarekin, lehen hiruhilekoko %3,3tik laugarreneko %2,3ra baino ez baitzen moteldu. Ildo horretan, EAEko ekonomiak 2022an bizi zuen moteltzearen zati handi bat hiruhilekoak igaro ahala kanpoko eskariak BPGaren hazkunderari ekarpen gero eta txikiagoa egitearen ondorio izan zen.

EAEko taula makroekonomikoa
3. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Barneko azken kontsumoa	2,9	2,6	2,0	-8,9	5,2	2,2
Familien kontsumoko gastua	3,1	3,0	1,7	-12,1	5,6	3,0
Herri administrazioen kontsumoa	2,1	1,2	3,1	2,9	3,9	-0,4
Kapital eraketa gordina	3,1	4,9	3,3	-12,1	6,0	4,4
Ekipamenduko ondasunak	3,5	4,5	3,0	-11,8	10,9	6,9
Gainontzeko inbertsioa	2,9	5,1	3,4	-12,3	3,1	2,7
Barne eskaria	2,9	3,2	2,3	-9,7	5,4	2,7
Esportazioak	4,8	2,7	-0,2	-15,9	12,7	10,2
Inportazioak	5,0	2,8	0,0	-15,8	11,6	7,5
BPG	2,8	3,1	2,2	-9,6	5,9	4,4
Lehen arloa	10,1	1,7	5,9	-16,9	21,9	0,8
Industria	2,5	2,0	1,4	-12,2	6,1	4,6
Eraikuntza	1,6	4,0	2,4	-14,4	4,5	2,0
Zerbitzuak	2,9	3,1	2,5	-7,9	5,8	4,7
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,1	4,3	2,2	-20,4	11,8	10,7
AA. PP., hezkuntza eta osasuna	2,2	1,8	3,2	1,1	3,1	1,8
Gainontzeko zerbitzuak	2,6	3,0	2,4	-4,3	4,0	2,8
Balio erantsi gordina oinarrizko preziotan	2,8	2,9	2,3	-9,4	5,9	4,5
Ekoiak gainera zerga garbiak	2,3	4,9	2,0	-11,9	6,1	3,3

Iturria: Eustat.

Barne eskariaren bi osagai nagusietatik, kapital eraketa gordinak erakutsi zuen bizitasunik handiena, %4,4 hazi baitzen, ekonomiaren batez besteko hazkundearen ildotik. Iazko urtearen amaieran erritmoa moteldu bazuen ere, agregatu horrek oso portaera egonkorra erakutsi zuen urtearen zatirik handienean, eta %5,0aren inguruko aldakuntza tasak eskuratu zituen, aurre egin behar izan ziren zailtasunak gorabehera: lehengai falta, kostuen igoera, ziurgabetasuna, etab. Kanpotik zein barnealdetik zetorren eskari handiak urte osoan igoera tasa azpimarragarriak izatea ahalbidetu zuen, baina 2021eko emaitza bikainera iritsi gabe (%10,9). Hazkunde tasa esanguratsuagoa izan zen ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioan (%6,9), eta

gainerako inbertsioan, eraikuntzan egindakoa barne hartzen baitu, emaitza apalagoa izan zen (%2,7), aurreko urtean jasotaketik (%3,1) ez oso bestelakoa.

Azken kontsumoko gastua %2,2 igo zen 2022an, aurreko urteko kopurutik urrun. Agregatu horren bi atalak 2021ean baino nabarmen gutxiago hazi ziren. Alde batetik, administrazio publikoen kontsumoak tasa negatiboa jaso zuen (-%0,4), eta horren arrazoia da aurreko urtean pandemia geldiarazteko egin zen ahalegin handia ez zela beharrezkoa izan 2022an mantentzea haren intzidentzia kontrolatuago zegoelako. Bestetik, familien kontsumoa %3,0 hazi zen urteko batez bestekoan, eta hiruhilekoko bilakaera profila apur bat beheranzkoa izan zen, inflazioak erosteko ahalmena murrizten zuen heinean. Hala eta guztiz ere, pandemian pilatutako aurrezkiak eta enpleguaren sorrera garrantzitsuak agregatu horri eutsi diote urtean zehar.

Eskaintzaren ikuspegitik, EAEko ekonomiak 2022an izan zuen hazkundera sendotzat jo daiteke; izan ere, hazkunde hori ez da sektore jakin baten mende egon, baizik eta, funtsean, bi zutabe nagusietan oinarritu da, hau da, industrian eta zerbitzuetan. Zehatz-mehatz adierazita, industriak %4,6 handitu zuen bere balio erantsia 2022an, eta zerbitzuek, berriz, %4,7. Industriak sendotasun handia erakutsi zuen urtearen lehen erdian, %6,0 inguruko aldakuntza tasak eskuratuta, ondorengo bi hiruhilekoetan moteldu ziren arren. Sektoreak hornidura faltari aurre egin behar izan zion, eta arazo horiek areagotu egin ziren kamioilarien greba baten ondorioz, enpresa garrantzitsu batzuen ekoizpena gelditu behar izan baitzen. Emaitza ona izan arren, oraindik hiru puntura du 2019an izan zuen balio erantsia.

Eraikuntza beste sektoreen emaitza onetatik urrundu zen eta urteko batez bestekoan %2,0ko hazkundera lortu zuen. Ukrainan gerra hasteak eragin handia izan zuen sektore horretan, lehengaien faltak bere jardueraren garapen normala eragotzi baitzuen. Halaber, lehengai falta horren ondoriozko kostuen igoerak obra batzuk geldiaraztera behartu zuen. Hala eta guztiz ere, urtearen bigarren erdia hobe izan zen eta orduan erregistratutako aldakuntza tasak industriak lortutakoaren antzekoak izan ziren. Emaitza horiek gorabehera, sektoreari ia hamar puntu falta zaizkio pandemiaren aurretik zuen mailara itzultzeko. Bestalde, eskura dagoen informazioaren arabera, obra zibilak eraikuntzak baino portaera hedakorragoa izan zuen, nahiz eta azken horrek bizkortzeko joera erakutsi zuen urtean zehar.

Zerbitzuek, oro har, oso portaera hedakorra erakutsi zuten 2022an zehar, eta beren balio erantsiaren batez besteko hazkundera %4,7koa izan zen, lehenago ere adierazi den bezala. Sektore horrek nabarmen gainditu du 2019an izan zuen maila, nahiz eta osagai guztiak ez dauden egoera

berean. Izan ere, merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen taldea %10,7 hazi zen, aurreko urteko %11,8aren ondoren. Emaizta apartak izan arren, oraindik bi puntu gehiago hazi behar ditu 2019ko balioa berreskuratzeko, jarduera horrek balio erantsiaren %20 baino gehiago galdu baitzuen pandemiaren ondorioz. Sektore publikoari gehien lotutako jardueren bilakaerak (administrazio publikoa, hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak) hazkunde neurritsuagoa izan zuen (%1,8), aurreko urtean emandako bultzadaren ondoren. Azkenik, gainerako zerbitzuek (%2,8) intentsitatea galdu zuten hiruhilekoak igaro ahala. Azken bi jarduera talde horiek 2019ko mailak gainditu dituzte jadanik.

2022ko alderdi nabarmenetako bat inflazioaren igoera bizia izan zen. Hainbat urtez joera neurritsua erakutsi ondoren, 2021ean ekonomiaren suspertzeak kontsumoko prezioen igoera %3,1ean kokatu zuen, Europako Banku Zentralaren (EBZ) helburuaren gaineratik, baina 2022an igoera nabarmen handiagoa izan zen (%8,0), Ukrainako gerrak lehengaien salneurrietan izan zuen eraginagatik. Izan ere, gatazka otsailean hasi zenean, areagotu egin ziren aurretik zeuden goranzko joerak, lehengai eta energia eskuragarrien kopurua murriztu egin baitzen. EAEko KPIaren punturik altuena uztailean gertatu zen (%10,5), elektrizitateari, gasari eta erregaiei eragin zien krisi energetiko baten erdian. Horrela, hilabete horretan gas naturalaren MWh-ren prezioa 200 euroraino igo zen eta 325 euroraino, berriz, abuztuan.

Hurrengo hilabeteetan, interes tasen igoerak eta Europan negua igarotzeko gas murrizketarik egongo ez zela baieztatzeak lagundu zuten KPIaren aldakuntza tasa beheratzen. 2023ko maiatzean, %3,4an zegoen tasa hori, eta ekainean jaisten jarraituko dela aurreikusten da. Moteltzeko joera hori ez da iritsi oraingoz azpiko inflaziora, %6,4ko tasan baitago, eta energiaren bilakaera onean bakarrik oinarritzen da. Bestalde, BPGaren deflatoarea %4,4an kokatu zen 2022an, hiruhilekoz hiruhileko bizkortze arineko profilarekin.

BPG errealaren hazkundeak (%4,4) eta enpleguarenak (%3,1) lan faktorearen itxurazko produktibitatearen irabazia %1,2an kokatu zuten 2022an, eta zifra hori azken hamarkadetako batez bestekoaren (%0,8) gaineratik dago. Sektore ekonomikoen portaerak ohiko ezaugarri batzuk izan zituen. Hala, industria izan zen berriro produktibitate irabazi handiena izan zuen jarduera (%3,0), batez besteko balioen gaineratik (%1,5). Bestalde, eraikuntzak apenas hobetu zuen eraginkortasuna hamarren gutxi batzuetan (%0,3), ohiko erregistroen ildotik. Hala ere, ezusteko txiki bat nabari da zerbitzuen emaitzan, hobekuntza esanguratsurik lortu ohi ez duen sektorea (%0,5), baina joan den urtean eraginkortasuna %1,0 hobetu zuen.

EAEko ekonomiaren beste aldagai nagusi zenbait

4. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Biztanleko BPG eurotan. EB-27=100	109,6	109,3	108,4	101,0	101,5	101,8
BPG per capita EAPn. EB-27=100	119,3	117,3	116,7	106,5	107,5	109,6
BPG erreala merkatu prezioetan	2,8	3,1	2,2	-9,6	5,9	4,4
Enplegua	2,1	2,3	1,5	-6,2	5,9	3,1
Lan faktorearen itxurazko produktibitatea	0,7	0,8	0,7	-3,6	0,1	1,2
BPG nominala merkatu prezioetan	3,5	4,3	3,4	-9,7	8,6	8,9
BPGaren deflatorea	0,7	1,2	1,2	-0,1	2,5	4,4
KPI (urteko batez bestekoak)	2,0	1,6	1,0	-0,1	3,1	8,0
Kostu guztiak langile bakoitzeko	0,5	2,5	1,8	-1,1	4,9	2,7
Langabezia tasa	11,6	10,5	9,8	10,6	10,0	8,5

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Eurostaten eta INEren datuetan oinarrituta.

EAEko ekonomiak 2022an izan zuen bilakaera aztertzeke unean, ezinbestekoa da BPGaren bilakaera unean uneko prezioetan ere aipatzea, prezioek koiuntura ekonomikoan izan zuten eta oraindik ere duten eragin esanguratsua dela eta. Horiek horrela, Euskadiko BPG nominala %8,9 handitu zen urte horretan, 1995etik izandako tasarik altuena baita. Hazkunde nominal horren zati handi bat, lehen ere adierazi den bezala, BPGaren deflatorearen igoerari zor zaio, %4,4 igo baitzen, hori ere hogeita bost urte baino gehiagoko igoera handiena izanik. Guztira, EAEko BPGa 85.000 milioi euroren atarian kokatu zen, inoizko kopururik handiena. Ekonomiaren une ona zergen bilketan islatu zen, %7,3 igo baitzen, 17.100 milioi euroko langa gaindituz. Nabarmentzekoa da BEZaren (%10,6) eta PFEZaren (%6,3) diru bilketa, bi zerga horiek 6.400 milioi euro baino gehiago bildu baitituzte. Sozietateen gaineko zergak ere joera positiboa izan zuen (%17,0), baina kasu horretan bilketa 1.300 milioi eurora baino ez da iristen.

Prezioen igoerak eta politika monetarioaren erantzunak, interes tasen igoerekin batera, zorraren batez besteko kostua igotzen hasi da. Zehazki, kalkulatu da zorraren batez besteko kostua oinarrizko 50 puntu garestitu zela 2022an. Gehiegizko defizitaren protokoloaren arabera, urte horretan zorra 350 milioi euro murriztu zen eta BPGaren %13,7ra jaitsi zen, Ekonomia Itunaren Batzorde Mistoan adostutako %15,6aren azpitik. Euskadi zor gutxien duen bigarren erkidegoa da, Madrilen atzetik.

Europako funtsak bi bidetatik iristen dira Euskadira. Alde batetik, Eusko Jaurlaritzak zuzenean jaso ditu berak kudeatu behar dituen jarduketarako zenbateko batzuk, eta, bestetik, Estatuak Euskadira bideratutako beste funts batzuk kudeatzen ditu, batez ere PERTE izeneko proiektu estrategikoen bidez. 2023ko apirilaren amaieran, 1.456 milioi euroko funtsak esleitu zitzaizkion Euskadiri; horietatik 1.045 milioi Eusko Jaurlaritzaren zuzeneko kudeaketarako ziren, eta 411 milioi Estatuaren kudeaketarako.

2022ko urteko txostenak leku garrantzitsua eskaintzen die EAEko gizarteak aurre egin beharko dien etorkizuneko erronka batzuei. Eusko Jaurlaritzaren aurrekontuak Nazio Batuen Batzar Nagusiak 2015ean onartu zituen garapen jasangarriko helburuekin (GJH) bat ote datozen aztertu da, eta aurrekontu programa ia guztiak gutxienez GJHetako birekin lerrokatuta daudela ondorioztatu da.

Jasangarritasuna eta ingurumena oso presente daude GJHetan, eta beraiek betetzeko ekonomia deskarbonizatu beharra dago. Errusiak Ukraina inbaditu ondoren sortutako energia krisiak energia eraginkortasuna eta energia berriztagarrien sustapena sustatu ditu. Dokumentu honetan azaltzen denez, energiaren aurrezteak, BPG puntu bakoitzeko, garrantzitsua izan da Euskadin, baina atzerapen nabarmena dago energia berriztagarrien ezarpenean. Biztanleko erregai fosilen kontsumoa ere ez da murriztu.

Etorkizuneko erronka garrantzitsuenetako bat biztanleriaren zahartzeari buruzkoa da, fenomeno horrek herrialde garatu ia guztiei eragiten baitie. Euskadiren kasuan, biztanleriaren %23k baino zertxobait gehiagok 65 urte baino gehiago ditu. Ehuneko hori handitu egingo da *baby boom*erak adin horretara iristean, eta hainbat alderditan izango ditu ondorioak, besteak beste, lan merkatuan. Lanbideren ekimenez garatutako FUTURELan proiektuak aurreratzen du 2033an milioi erdi bat pertsona beharko direla urte honetatik aurrera erretiratuko direnak ordezkatzeko. Enpleguen aukera horiei EAEko ekonomiaren garapenagatik sortutakoak gehitu beharko zaizkie, eta dokumentu honetan aurkeztutako agertokiak %2ko hazkunde tasak aurreikusten ditu datozen urteetan.

Adimen artifizialak interesa eta kezka piztu ditu gizartean. Ukaezina da pertsonen eta enpresen egunerokotasunean aukera ugari irekitzen dituela. Hasiara batean, produktibitatearen hazkundera mesede egitea eta inflazioa kontrolatzen laguntzea espero da, baina ukaezina da eragin garrantzitsua izango duela lan merkatuan. Ildo horretan, FUTURELan proiektuak berak, ELGaren eta beste batzuen aurreko lanei jarraituz, lanbideen eta sektoreen arabera, EAEko ekonomian trebetasunen automatizazioak izan ditzakeen ondorioak kuantifikatu ditu. Ondorioa da tresna hori

osorik garatuz gero, inpaktua 200.000 lanpostu ingurukoa izan daitekeela. Hala ere, gaitasun batzuetan ikusten diren botila lepoek iradokitzen dute inpaktua txikiagoa izan daitekeela eta, aldi berean, beste enplegu aukera batzuk sortuko direla haren itzalpean.

Txostena amaitzeko, soldata arrakalak azken urteetan izan duen bilakaera zehazten da, pixkanaka murrizten ari baita, baina esanguratsua izaten jarraitzen du. INEren soldata egituraren datuek iradokitzen dutenez, lanbide arteko gutxieneko soldataren (LGS) igoera handiek arrakala hori murrizten lagundu dute, bereziki emakumeei mesede egin baitiete. Zehazki, pertsonako soldata arrakala %30 murriztu da azken bost urteetan, eta lan egindako ordu bakoitzeko arrakala, berriz, %50 baino gehiago.

1. EKONOMIA UKRAINAKO GERRAREN URTEAN


1.1 EAEko ekonomiaren ingurunearen portaera

2020an jasandako pandemiaren eta 2021ean bizitako susperraldiaren ondoren, 2022. urtea zalantza handi batekin hasi zen: inflazioaren bilakaera. Banku zentral nagusiek 2020an eta 2021ean pandemiari aurre egiteko hartu zituzten neurrien ondorioz, zirkulazioan zegoen dirua asko handitu zen. Eskaintza monetarioa eskariaren gainetik hazten denean gertatzen den bezala, soberakin monetario horrek, lehenik, burtsen gain izan zuen eragina, gero lehengaien gain eta, ondoren, garraioaren eta handizkako merkataritzaren gainean. Lehen alarma seinaleak 2021eko bigarren erdian piztu ziren, lehengaien prezioen igoeragatik eta bizitzaren kostuaren garestitzeagatik. Horrela iritsi zen 2022ko urtarrila, inflazio prozesu batekin, finantza merkatu ez hain euforikoekin eta hazkunde erritmo gero eta motelagoarekin. Prozesu hori azken fasera iritsi zenean, hau da, inflazioa zerbitzuetan eta txikizkako merkataritzan nabaritzen hasi zenean, Ukrainako gerra piztu zen.

Gatazkaren ondorio zuzenak agertu ziren lehenak izan ziren. Ahaztu gabe bizitzen galera tragikoa, herrialdeko azpiegituran izandako kalte izugarriak eta milioika errefuxiatuaren olatua, Ukraina munduko gari ekoizle nagusietako bat denez, irinaren eta ogiaren prezioak gora egin zuen mundu osoan. Ekialde Hurbileko herrialde batzuetan, hala nola Egipton edo Iranen, bereziki Ukrainako gariaren menpekoak baitira, gerrak oinarrizko produktuen eskasia handia eragin zuen. Ondoren, AEBek Errusiari jarritako zigorrak iritsi ziren, Europar Batasunak, Japoniak eta beste herrialde batzuek ere ezarri zituztenak. Errusiako aktiboen izozteaz eta atzerrian errubloa erabiltzeko murrizketaz gain, energiari lotutako neurriek izan zuten eraginik handiena. Errusia mendebaldeko merkataritzatik isolatuta geratu zen, Errusiatik Europarako petrolio eta gas banaketa gutxituta geratu zen bitartean. Horren ondorioz, jadanik 2021eko erdialdetik gora egina zuen argindarraren prezioak are gehiago garestitu zen, eta Europan muturreko mailetara iritsi zen.

Horrek guztiak 2021eko erdialdetik maila historikoetatik gora igotzen ari zen inflazioa are gehiago bizkortu zuen. Bilakaera horrek familien kontsumorako ahalmena murriztu zuen, ekoizpena eta industria jarduera uzkurto zituen eta kontsumitzaileen konfiantza okertu zuen. Inflazio handia galgatzeko eta murrizteko asmoz, banku zentralak diru politikak gogortu behar izan zituzten, eta, ondorioz, BPGaren moteltze nabarmena gertatu zen urtearen bigarren erdian.

Lehengai energetikoen bilakaera. Hileko batez bestea
4. irudia



Iturria: Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalerako Ministerioa.

Nazioarteko merkataritza izan zen beste eremu kaltetuenetako bat. Prezioen gorabehera handiek merkataritzako estatistikak balio terminoetan desitxuratzeko joera dutenez, zentzuzkoa da azterketa merkataritzaren bolumenetan fokatzea. Hori horrela, ikusten da salgaien merkataritza uste baino erresilienteagoa izan zela 2022ko zatirik handienera; izan ere, salgaien merkataritzaren bolumenaren batez besteko hazkunde tasa %4,2 izan zen 2022ko lehen bederatzi hilabeteetan, eta laugarrena arte ez zen bolumen hori uzkurto, esportazioen urteko hazkunde %2,3raino murriztuz, 2021ean erregistratutako %8,4tik urrun, eta are gehiago dolarretan izandako %11,5eko hazkudetik urrun.

Munduko ondasunen merkataritza eremuka
5. taula

Salgaien merkataritzaren bolumenaren urte arteko aldakuntza tasak

	Esportazioak				Inportazioak			
	2019	2020	2021	2022	2019	2020	2021	2022
Mundua	0,4	-4,7	8,4	2,3	0,4	-5,4	10,3	3,2
Ipar Amerika	0,4	-8,9	6,5	4,2	-0,6	-5,9	12,5	6,0
AEB	-0,5	-10,8	8,1	4,1	-0,5	-3,9	12,1	6,0
Erdi eta Hego Amerika	-1,3	-4,9	5,8	1,9	-1,8	-10,8	25,6	4,2
Brasil	-0,9	1,4	3,7	4,7	4,2	-7,1	24,7	1,8
Europa	0,4	-7,7	8,1	2,7	0,3	-7,2	8,5	5,2
Europar Batasuna	0,1	-7,4	8,4	2,9	0,1	-7,0	9,4	5,5
EBE (*)	0,4	-7,7	8,1	2,7	8,3	-5,5	9,1	-13,5
Errusia	-3,0	-0,3	3,3	-4,7	5,8	-3,4	14,3	-24,5
Ukraina	5,6	-6,0	-7,4	-40,0	6,1	-10,3	8,5	-47,8
Afrika	-0,3	-7,2	3,5	0,7	3,3	-14,8	6,4	5,6
Ekialde Hurbila	-1,0	-6,6	-2,4	9,9	11,2	-10,1	8,3	9,4
Asia	0,8	0,6	13,1	0,6	-0,5	-0,8	10,5	-0,4
Txina	2,0	2,8	17,3	-2,0	0,0	4,9	7,6	-7,2
Japonia	-1,8	-8,0	11,9	1,9	0,5	-3,7	2,3	0,5
India	2,3	-11,1	22,9	0,6	-1,1	-14,3	17,3	1,5

(*) Estatu Burujabeen Erkidegoa.

Iturria: Munduko Merkataritza Antolakundea (MMA) eta UNTAC.

Hainbat faktorek lagundu zuten merkataritzaren dinamismo txikiago horretan, eta horietatik nabarmenena oinarrizko produktuen munduko prezioen igoera izan zen, diru sarrera errealak eta inportazioen eskaria higatu baitzituzten. Energiaren prezioen inpakturik handiena udako hilabeteetan sentitu zen Europan, Errusiatik zetorren gasaren hornidura moztea planteatu zenean. Era berean, gariaren eta beste zereal batzuen prezio altuek Ekialde Ertaineko eta Afrikako herrialdeei eragin zieten, neurri handi batean Ukrainatik eta Errusiatik datozen inportazioen mende baitaude. Txinan, covid-19ak eragindako infekzioen gorakadak eta urtearen zati handi batean izandako murrizketa handiek kontsumoko ondasunen bai ekoizpena bai eskaria maila apalean utzi zuten. Azkenik, ekonomia aurreratuetako interes tasen igoerek ere eskaria hozten lagundu zuten 2022ko azken txanpan.

Laburbilduz, inflazio handiak eta gerrak salgaien merkataritzaren bolumenaren beherakada orokorra ekarri zuten ia eskualde ekonomiko eta herrialde guztietan, eta hori bereziki gordinki islatu zen Ukrainan, esportazioak kolapsatu egin baitziren (-%40). Ekialde Ertaina izan zen 2021eko erregistroarekin alderatuta hobekuntza izan zuen eremu bakarra. Hori Bruselatik martxan jarritako deskonexio energetikoko mekanismoek eragin zuten, Qatar, Aljeria eta Egiptoko merkatuei mesede egin baitzieten, gas ekoizle horiek Errusiako gasaren esportazioak partzialki, gutxienez, ordezkatzeko gaitasuna baitzuten.


Munduko jarduera ekonomikoaren bilakaerari dagokionez, hasiera batean aurreikusitakoa baino erresistenteagoa izan zen, eta badirudi 2023ko lehen hilabeteetan dinamismo berrituaren zantzuak antzeman zirela. Oro har, BPGaren hazkundera %3,4koa izan zen 2022an, NDFk egindako lehen kalkuluen arabera. Ekonomiaren erresilientziari lagunduko zioten aurreko hilekoetan eskaintzaren aldetik bizi ziren asaldurak bertan behera geratu izanak, udatik aurrera nazioarteko merkatuetan energia prezioen jaitsiera eragin zuena, eta 2021ean nazioarteko merkataritzan sortutako botila lepoak pixkanaka konpontzeak, eta horrek inflazioa gutxika-gutxika moteltzea ekarri zuen udazkenetik aurrera. Halaber, familiek diru kopuru handi samarra zuten pilatuta pandemian zehar, eta, horri esker, covid osteko eskariaren gorakadak ondorio positiboak ekartzen jarraitu zuen. Hori guztia, krisi inflazionistaren ondorioak arintzeko agintariek hartutako neurriek emandako bultzada fiskalak jarduerari mesede egin zion testuinguru batean.

Zehatzago adierazita, Latinoamerikako BPGaren hazkunde tasa %4,0koa izan zen, gorabidean dagoen Asiako erritmoaren antzekoa (%4,4) eta Ekialdeko Europakoa (%0,8) baino askoz handiagoa. Hazkundera %4,0tik pixka bat gorakoa izan zen Erdialdeko Amerikan eta Dominikar Errepublikan. Horri esker, eskualdeko ekonomia nagusiek pandemia aurreko jarduera maila gainditu zuten. Nolanahi ere, bilakaera ekonomikoa heterogeneoa izan zen herrialdeen artean eta hazkunde tasak Txileko %2,4tik Venezuelako %8,0ra eta Panamako %10,0ra mugitu ziren. Ezberdintasun horiek, besteak beste, politika ekonomikoek, etorkinen diru bidalketek, kanpoko eskariak eta lehengaien prezioek eragin zituzten. Zentzu horretan, Txileko eta Peruko ekonomiei kalte egin zien lehengaien prezioen truke negatiboak.

Asiari dagokionez, Txinako ekonomiaren hedapena %3,0ra moteldu zen 2022an, aurreko urtean erregistratu zuen %8,1 hartatik, koronabirusari aurre egiteko ezarritako neurrien eta apaltze globalaren eraginaren ondorioz. 2020an, covidaren pandemiaren hasieran, izan zuen %2,2ko hazkundera alde batera uzten bada, 1976az geroztik, hau da, ekonomia txikitu zuen hamarkada bateko Iraultza Kulturalaren azken urteaz geroztik izan duen emaitzarik txarrena izan da iazkoa. Bestalde, higiezinaren sektorea izan zen hazkunderaren beste oztopo nagusia. Sektoreko inbertsioak

urte arteko %10,0 egin zuen behera 2022an, lehen jaitsiera 1999an erregistroak hasi zirenetik, eta jabetzen salmentek beherakada handiena izan zuten 1992tik. Hala eta guztiz ere, eta 2022an itxiera eta konfinamendu ugari izan arren, langabezia tasa hiru hamarren baino ez zen igo, %4,2ra, eta inflazioa %1,9an kokatu zen.


Barne produktu gordina. Urte arteko aldakuntza tasak
5. irudia



Iturria: NDF.

Indiari dagokionez, 2022an munduko bosgarren ekonomia gisa zuen abantaila handitu zuen BPGari dagokionez. India AEBen, Txinaren, Japoniaren eta Alemaniaren atzetik dago kokatuta. Herrialdeak ekoizpen oinarri zabala du eta hainbat hamarkadatan hedatu zen, inportazioak ordezkatzeko estrategiarekin. Garia eta arroza dira nekazaritzako produktu nagusiak, eta manufacturen artean petrolioko produktuak, farmazeutikoak, elektronikoak, ehunak eta jantziak, burdina eta altzairua, automobilak eta makineria, harribitxiak eta bitxiak nabarmentzen dira. Kontsumo nazionalaren jaitsiera, herrialdearen hazkunde ekonomikoa gehien bultzatzen duen faktoreetako bat, esportazioen gorakadak konpentsatu zuen partzialki, 2022an 421.000 milioi dolarreko errekorra izan baitzuen, eta horrek jarduera ekonomikoa %6,8 haztea ekarri zuen.

**Herrialde garatu gabeen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak
6. irudia**



Iturria: NDF.

Elikagaien inflazioari egiten dioten ekarpena Latinoamerikan gorabidean dagoen Asian baino handiagoa izateak ez du zerikusirik elikagaien multzoak familien kontsumoko saskian duen pisuarekin, baizik eta saski horrek eskualdean duen osaera bereziarekin. Adibidez, arrozak pisu handi samarra du Asiako herrialdeetako kontsumoko saskian, eta haren prezioak hegazkortasun txikiagoa erakutsi du azken hiru hilabeteetan, beste zereal batzuen prezioek erregistratu dutenarekin

alderatuta (garia eta artoa, esaterako), pisu handiagoa izan baitu Latinoamerikako familien kontsumoko saskian.

Japoniak, bestalde, %1,0ko hazkundera izan zuen 2022an, aurreko urteko %2,1eko hazkunde erritmoaren azpitik, eta atzeraldi tekniko saihestea lortu zuen iazko laugarren hiruhilekoan, %0,1eko hazkunderarekin, hirugarren hiruhilekoko %0,4ko jaitsieraren ondoren. Ziurgabetasuna eta prezioen gorakada gorabehera, familien kontsumo pribatuak, BPGaren %60ren erantzulea baita, harritu egin zuen %2,1eko hazkunde bizkorrarekin, 2021ean lortutako %0,4ko gorakadaren aldean. Kanpoko saldoak igoera hori arindu zuen, jarduera ekonomikoa hamarren batzuk drainatuz. Zehazki, inportazioak %7,9 hazi ziren, eta esportazioak %4,9. Egoera horrek ekonomiaren susperraldia geldiaraziko luke egungo energiaren eta lehengaien garestitzearen testuinguruan, herrialde japoniarrak duen mendetasun handia dela eta.

Gainerako ekonomia aurreratuen bilakaera antzekoa izan zen. 2022ko lehen hiruhilekoan pandemiaren ondoren berriro irekitzearen ondorioengatik jasotako bultzadaren ondoren, jarduerak dinamismoa galdu zuen urteak aurrera egin ahala, inflazioaren presio handien, gerra egoeraren ziurgabetasunaren eta diru politiken gogortzearen ondorioz, kontsumoa eta inbertsioa beherantz baldintzatu baitzituzten.


Nahiz eta Fed-ek norabidea aldatu eta bere esku hartzeko interes tasak igoera handiak izan (4,25 puntu zazpi igoeratan), AEBetako BPGak sendo itxi zuen 2022. Kontsumo pribatuak, AEBetako ekonomiaren funtsezko zutabea, %2,1 egin zuen gora eta 1,85 hamarren ekarri zuen hazkundera. Zerbitzuek %4,5eko hazkundera izan zuten, ondasunen jaitsierari aurre eginez (-%0,5). Kanpo saldoak, bestalde, lau hamarren drainatu zuen jarduera, inportazioen dinamismoa handiagoa izan zelako, eta horrek, oro har, BPGaren %2,1eko hazkundera ekarri zuen. Tasa garrantzitsua, baina 2021ean erregistratutako %5,9arekiko apaltze nabarmena erakusten duena.

Eurogunean, oro har, kontsumo pribatuak hazkunderari ekarpen handia egin zion eta kanpo sektoreak bultzada horren zati bat drainatu zuen. Hala ere, eremua osatzen duten herrialdeen hazkunderak oso desberdinak izan ziren eta muturretako datuak Irlandaren %12,0k (multinazionalen kontabilitate jarduerak mesede egin zion) eta Estoniaren %1,3k markatu zuten. Azpimarragarriena, berriz ere, urtearen azken txanpan tonua nabarmen galdu izana izan zen. Izan ere, hiruhileko arteko tasetan, eremua osatzen duten 19 herrialdeetatik 8k ikusi zuten jarduera murrizten ari zela. Kaltetu nagusien artean Alemania, Austria eta Italia daude, Errusiako lehengaietikiko mendekotasun handia

duten herrialdeak baitira, bereziki gasarekiko mendekotasuna dutenak. Hala ere, eurogunea %3,5 hazi zen 2022an urte arteko tasetan.


Ekonomia aurreratuen BPGa. Urte arteko aldakuntza tasak
7. irudia

AEB




84-94 95-05 06-16 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Japonia




84-94 95-05 06-16 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Eurogunea



95-05 06-16 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Alemania



84-94 95-05 06-16 2017 2018 2019 2020 2021 2022

Iturria: NDF eta Eurostat.

Azkenik, 2022ko bi protagonista nagusien bilakaera ere heterogeneoa izan zen. Horrela, Errusiak, zigorrak pairatu zituen arren, uste baino portaera hobea erakutsi zuen. Zehazki, Errusiako ekonomia %2,1 uzkuritu zen, eta covidak bizi izan zuena baino atzeraldi txikiagoa izan zuen. Inbertsio pribatuaren apaltzea partzialki konpentsatu zen gobernuaren inbertsioaren gorakadarekin eta lan merkatuaren erresistentziarekin (langabezia tasa %3,9 izan zen, nahiz eta mendebaldeko enpresek herrialdea utzi zuten) eta barne eskariarekin (batez ere herrialdeko ekialdeko eskualdeetan eta gerraren eta zigorren aurkako 'haizeen' arrisku txikiagoan). Tasa horietatik urrun geratu zen Ukraina, bertako ekonomia %30,3 jaitsi baitzen.

Hala ere, litekeena da 2023aren hasiera Errusiarentzat hain positiboa ez izatea eta 2022ko abenduan ezarritako bi zigorren eragina nabaritzen hastea: Europar Batasunak Errusiako petrolioia itsasoz inportatzeko debekua eta G-7ak ezarritako petrolioaren prezioen muga. Hazkunde datuak argitaratu arte itxaron beharko da neurri horien benetako eragina kuantifikatzeko; izan ere, Errusiak nabarmen handitu ditu bere petrolio salmentak Txinan eta, batez ere, Indian, eta, aldi berean, iragarri du ekoizpena 500.000 upel inguru murriztuko duela egunero.

Ekonomiaren aldagai nagusiak
6. taula

Urte arteko aldakuntza tasak


	BPG erreala		Inflazioa		Langabezia tasa	
	2021	2022	2021	2022	2021	2022
Mundua	6,3	3,4	4,7	8,7	--	--
Ekonomia garatuak	5,4	2,7	3,1	7,3	5,6	4,5
AEB	5,9	2,1	4,7	8,0	5,4	3,6
Japonia	2,1	1,1	-0,2	2,5	2,8	2,6
Europar Batasuna	5,4	3,5	2,9	9,2	8,0	7,7
Alemania	2,6	1,8	3,1	6,9	3,7	3,1
Frantzia	6,4	2,5	1,6	5,2	7,9	7,3
Erresuma Batua	7,6	4,0	2,6	9,1	4,5	3,7
Italia	7,0	3,7	1,9	8,2	9,5	8,1
Espainia	5,5	5,5	3,1	8,4	14,8	12,9
Garapen bidean daudenak	6,9	4,0	5,9	9,8	--	--
Asia	7,5	4,4	2,2	3,8	--	--
Amerika Latinoa	7,0	4,0	9,8	14,0	--	--
Ekialdeko Europa	7,3	0,8	9,6	27,9	--	--

Iturria: NDF eta Eurostat.

Kontrako haize horien aurrean, ekonomia nagusien lan merkatuak jarduera sendoarekin jarraitu zuen, bai enpleguaren sorreran, bai langabezia baxuan, bai soldaten dinamismoan. Izan ere, AEBetan eta Europar Batasunean langabezia tasak ziklo ekonomikoaren minimoetan edo haietatik oso gertu mantendu ziren (%3,6 eta %6,2 batez beste 2022an, hurrenez hurren), eta joera beherakor horri eutsi diote 2023ko lehen hilabeteetan ere.

Inflazioari dagokionez, energiaren prezioen gorakada bizia, Europako herrialde batzuetan %40tik gorako hazkunde puntualekin, inflazio tasa handien arrazoi nagusia bihurtu zen, bai zuzeneko eraginean (energiaren osagaiak inflazio osoaren %50 inguru azaltzen zuen), bai zeharkakoan (produktzio kostuen gaineko presioaren bidez, energiaren gorakada ondasunen eta zerbitzuen saski osora eramaten da). AEBetako inflazioak 2022ko ekainean izan zuen goia (%10,1); eurogunean (%10,6) eta Europar Batasunean (%11,6), berriz, tasa gorenak urrian ezagutu ziren. Harez geroztik, 2023ko maiatzera arte, bai oinarri efektuengatik, bai energiaren prezioek beherantz egin zutelako, energiaren goranzko presioa desagertzen joan da, nahiz eta azpiko inflazioa etengabe maila altuetan mantendu den.

Inflazioaren bilakaera. Urte arteko aldakuntza tasak
8. irudia



Iturria: Eurostat.

Gaur egun, Ukrainako gerrak aurrera jarraitzen du, eta zerealen esportazioei berrekiteak merkatuetara lasaitasun pixka bat ekarri badu ere, energia sektoreak garai zaila pasatzen jarraitzen du. Lehengaien salneurriek, beste aldetik, portaera negatiboa erakutsi dute azken seihilekoan eta maila maximoetatik %20 eta %30 artean egin dute behera. Kasu batzuetan, hala nola gas naturalaren kasuan, %50 baino gehiago merkatu dira. Ondorioz, industria eta saltoki askok egonkortasun handiagoa izan dute. Hala ere, lehengai gehienen prezioek hegazkortasun handia erakusten jarraitzen dute, Ukrainako gatazka belikoaren geldialdiagatik eta ekonomiaren moteltze globalagatik, besteak beste.

Oraingoz, 2023ko lehen hiruhilekoko emaitzek erakusten dute munduko ekonomia erresilientea eta dinamikoa dela, baina agortzearen lehen sintomak antzematen hasi dira. Zehazki, euroaren eremuak urte arteko %1,3ko hazkundera izan zuen arren, hiruhilekoen arteko tasetan ondoz ondoko bi hiruhileko pilatu zituen negatiboan, eta horrek atzeraldi teknikoan kokatzen du. Alemaniaren bilakaera txarrak eragin zuen neurri handi batean uzkurdua hori.

1.2 Euskadiren bilakaera ekonomikoa

Eustatek argitaratutako datu ofizialen arabera, 2022an Euskadiko biztanleko BPGak %4,4 egin zuen gora urte arteko tasan, hau da, 31.317 eurora iritsi zen. Zifra horrek, pandemiaren urtearen ondoren, eta egungo gatazka belikoan, ia berdindu egiten du 2019an lortu zen biztanleko BPGaren errekorra (31.392 euro), eta, hiru urte gorabeheratsuen ondoren, 2020an izandako %10,7ko jaitsiera izugarria konpentsatzea ahalbidetzen du.


2022an EAEko biztanleko BPGaren hazkundera hori erreferentziazko herrialde multzoak diren Europar Batasunarena eta Europar Batasuna-15arena baino handiagoa da, %2,4 eta %2,7koa izan baitzen, hurrenez hurren, bai eta ekonomia aurreratu batzuen baino handiagoa ere, hala nola Austriarena (%3,4) eta, bereziki, Alemaniarena (%0,7). Nabarmentzekoa da 2022an Txekiako ekonomiak beherakada txikia izan zuela (-%0,2), Alemaniako ekonomiaren trakzio efektuaren mende baitzegoen, eta %0,7 eskasa izan zuen. Espainiak, bestalde, %3,5eko hazkundera lortu zuen, Europa hegoaldeko ekonomiek krisiaren irteeran izan zuten portaera hobearen isla.

Datu horiek erakusten dute 2020an atzeraldi ekonomiko pandemikoaren sakontasuna erreferentziazko herrialdeen artean, are gehiago Espainian eta Euskadin, pandemiak herrialde


bakoitzeko ekonomietan izan duen eragin desberdinaren isla, egitura ekonomikoetan dauden aldean ondorioz, baita herrialde bakoitzean ezarri ziren murrizketen unean uneko eta intentsitateko tratamendu desberdinaren ondorio gisa ere.

BPG biztanleko. 2019-2022
9. irudia

Urte arteko aldakuntza tasak



Mila euro



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta.

Era berean, eta ondoren, 2021ean krisialditik azkar atera dela egiaztatu da, V moduan, baita modu desberdinean herrialdeen artean ere, azkarrago eta indartsuago Euskadin eta Espainian, eta motelago Europako erdialdeko herrialdeetan.

Biztanleko BPGaren maila dagokienez, eta 2019ko erreferentzia urtearekin alderatuta, Euskadik 2019ko datua berdindu du, eta, 2020ko eta 2021eko shockak alde batera utzita, erreferentziazko Europako ekonomia guztiak 2019ko datuen gainera daude kokatuta, apur bat bada ere, salbuespen bakarrak Espainia, Txekiar Errepublika eta Alemania direlarik.


2022ko datu horrekin, EAEko biztanleko BPGaren maila (Espainiako EAPn neurtuta) Europar Batasuneko-15ekoa baino %7,7 handiagoa da (2019an %9,0 handiagoa izan zen) eta 28 kidez

osatutako Europar Batasun osoarena baino %15,8 handiagoa (%17,0 izan zen 2019an). Hala ere, 15 kidez osatutako Europar Batasuneko EAP berarekin neurtzen bada, maila eremu horretakoa baino pixka bat txikiagoa da, %3,5 txikiagoa (%2,4 izan zen 2019an). Oraindik ez da 2019ko konbergentzia mailara iritsi, eta tarte estua geratzen da erabateko konbergentzia lortu arte.

Aldagai horrek 1995etik izan duen bilakaera aztertuta, hautematen da EB-15ekin erabateko konbergentziarako hirugarren saiakera bat egin dela. Lehenengo saiakera 2009an gertatu zen, eta Atzeraldi Handiak hautsi zuen; bigarrena, berriz, 2020an, pandemiaren etorrerarekin huts eginda; eta orain berriro ekin zaio konbergentzia prozesu horri.

Harrigarria da Alemaniak 2022an izan zuen bilakaera negatiboa Europar Batasuna-15ekin alderatuta. Gainera, 2020az geroztik, herrialde horrek ez du gora egiten, seguruenik covid murrizketen aplikazio zorrotzagoaren ondorioengatik, hain ekonomia irekian gertatzen den eskaintzaren eta eskariaren arteko desorekagatik, eta gatazka belikoaren eta Errusiako gasarekiko mendekotasun handiagoaren ondoriozko tentsio energetikoengatik. Jokabide horrek Txekiako ekonomiari ere kalte egin dio, merkataritzan oso lotuta baitago Alemaniari.

BPG biztanleko. EAP
10. irudia




Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta.

Ikusten da Euskadi eta Alemania epe luzera Europar Batasuna-15ekin bat egiteko nolabaiteko joera, baina oraindik goiz da prozesu hori beste herrialde batzuetan orokortua izango dela ziurtatzeko, Austriak, Espainiak eta Txekiak datu kontrajarriak baitituzte 2022an.

Biztanleko BPGaren hazkundearen banaketa EAPEan

Biztanleko BPG ($BPG_{pc} = Y/N$) jotzen da jarduera ekonomikoaren adierazlerik onartuentzat. Jarraian, bere portaeraren azpian dauden determinatzaileak aztertzen dira, hau da, laneko parte hartzea (L/N), lanaldia (H/L) eta produktibitatea orduko (Y/H).

BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (I)
11. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta.

2022an, EAEko ekonomiaren biztanleko BPGa %4,4 hazi zela kalkulatu da, hiru osagaiak bultzatuta, eta, horien artean, langileen parte hartzearen igoera nabarmendu zen (%2,1), 2021etik nabarmen suspertuta baitzegoen (%2,9) lan aktibaziora itzultzean. Era berean, lagungarria izan zen


lan produktibitatearen orduko igoera nabarmena (%1,7), 2021eko datua (%0,5) sendotu baitzuen. Azkenik, intentsitate txikiagoarekin bada ere, langile bakoitzeko lanaldiaren igoera txikiak ere lagundu zuen (%0,6), eta puntu bat baino gutxiagoko ekarpen klasikoetara itzuli da, 2021eko %2,7ko pizgarriaren ondoren.

2020ko datuei begiratuta, pandemiaren neurriek eta murrizketek eragin zuten narriadura-maila hautematen da. Urte horretan, biztanleko BPGaren determinatzaile guztiak behera jaitsi ziren, eta uzkurdua handiena lanaldiarena izan zen (-%4,7). Beherakada horien ondorioz, biztanleko BPGa %10,7 uzkurdu zen. Gaur egun, EAEko ekonomiak pandemiaren aurkako neurriek eragindako shock ekonomikoa, eskaintzaren eta eskariaren arteko ondorengo doikuntza distortsioak eta Ukrainako gerraren oraingo ondorioak gainditu ditu.


Biztanleko BPGak 2022an lortu zuen igoera ez zen enpleguaren hobekuntzaren ondorio soilik izan, kontuan hartuta 30.056 enplegu garbi sortu zirela (%3,1), baizik eta, horretaz gain, lanaldiak ekarpen nabarmena egin zuela (1.452 lanordu guztira zenbatetsitako langile bakoitzeko). Aitzitik, nabarmentzekoa da Alemaniako ekonomiaren orduko produktibitatearen hazkunde hutsala 2022an eta AEBetako %2,3 murriztu izana, nahiz eta ekonomia hori den oraindik produktiboena (53,36 euro orduko), ondoren Alemaniakoa dagoela (49,12 euro).

BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (II)
12. irudia

Espainia



Europar Batasuna 15



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak eginia Eustat eta AMECOn datuetan oinarrituta.


Espainiak, bestalde, Euskadiren antzeko erregistroak jaso ditu, baina datu apalagoekin. Biztanleko BPGaren %3,5eko hazkundearen oinarrian, funtsean, lan partaidetzaren %2,0 zegoen, bai produktibitateak bai lanaldi igoerak %0,7ko ekarpen bana egin baitzuten.

Europar Batasuna-15eko eremuan, lanaldiaren osagaiak babestu zuen biztanleko BPGaren hazkundera (%2,7), eta beste bi osagaien balioak konpentsatu ziren.

BPG biztanlekoaren hazkundearen banaketa (III)
13. irudia

Alemania

AEB



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Eustat eta AMECOren datuetan oinarrituta.

Alemaniako biztanleko BPGaren hazkunde datuak (%0,7) harrigarria da, dinamismo eskasa erakusten duelako. Gehikuntza txiki hori parte hartzean eta lanaldian oinarritu zen, produktibitateak ekarpen hutsala egin baitzuen, 2008an bezala. AEBak, azkenik, biztanleko BPGaren hazkunde eskasaren %0,8ko datuaren barruan, harrigarria da 2022an orduko produktibitatea %2,3 jaitsi izana, azken berrogei urtean behin ere gertatu ez dena; zehazki, 1982tik (-%0,3). Uzkurdua hori salbuespenezko datua da, 2023rako gutxi gorabehera %1,1eko hazkunde positiboa aurreikusten baita.

2022a hazkunde handiko urtea izan da, eta pandemiaren aurreko ekoizpen maila ia osorik berreskuratzea ahalbidetu du. Lehen aurreikuspenek adierazten zuten berreskuratze hori urtean zehar gertatuko zela, baina azkenean ez zen horrelakorik gertatu Errusiak Ukraina inbaditu zuenelako. Hala, EAEko ekonomiaren hazkundera %4,4 izan zen 2022an, hiruhilekoko kontabilitatearen arabera, eta 2021ean, berriz, %5,9. Izan ere, urtearen bigarren erdian erritmoa moteldu egin zen, energiaren prezioek igoera handia izan zutelako eta horrek ekonomiaren gainerako prezioetan eragina izan zuen. Ondorioz, BPGaren deflatorea %4,4ra igo zen. Horrela, BPGaren igoera unean uneko prezioetan %8,9 izan zen; gutxi gorabehera erdia hazkunde erreala eta beste erdia prezioen igoera.

Eskaintzaren aldetik, industria eta zerbitzuak izan ziren, Euskadiko BPGan pisu handiena duten sektoreak izateaz gain, EAEko ekonomiaren hazkundera gehien bultzatu zutenak. Bai lehen sektoreak, bai eraikuntzakoak, ekonomia osoak baino hazkunde txikiagoa izan zuten, kasu bakoitzean arrazoi ezberdinak izan zirelako.

Lehen arloko adierazle nagusiak
7. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
BEG bolumeneko indizea	10,1	1,7	5,9	-16,9	21,9	0,8
BEG uneko prezioak	25,2	-4,9	4,5	-18,3	26,9	6,7
Deflatorea	13,8	-6,5	-1,3	-1,8	4,2	5,9
Enplegua	0,1	2,1	-2,8	-2,5	-3,9	-0,8
Produktibitatea	10,0	-0,3	9,0	-14,7	26,7	1,6

Iturria: Eustat.

Lehen sektoreak gorabehera handiak izaten ditu eta, neurri handi batean, dinamika exogenoen mende egoten da. Hala, 2021ean susperraldi handia izan ondoren, haren hazkundera %0,8ra baino ez zen iritsi 2022an, eta eragin negatiboa izan zuen sektoreko deflatorearen igoera tasan islatzen diren produkzio prezioen igoerak (%5,9). Hazkunde tasa txikia izan arren, nabarmendu behar da 2021ean pandemiaren aurreko ekoizpen maila gaintu zuen lehen sektorea izan zela. Sektoreko enpleguaren bilakaerak joera negatibo bat erakusten jarraitzen du, sektorearen logikaren barruan

ulertu behar dena. Logika horretan, produkzioaren hazkundera produktibitatearen irabaziei zor zaizkie, ekoizteko prozesuen modernizazioari esker.

Industriak %4,6ko urteko hazkundera eskuratu zuen, eta hazkunde handieneko bigarren sektorea izan zen 2022an. Hazkunderaren datu on horren ondoren, sektorea gertuago dago pandemiaren aurreko balio erantsiaren maila berreskuratzetik. Izan ere, 2022an, batez beste, 2019ko azken hiruhilekoan baino 3,3 puntu beherago dago oraindik, nahiz eta aldea puntu pare batera murriztu den 2023ko lehen hiruhilekoko datuak ezagutu ondoren. Sektorearen dinamika positiboa izan zen urtearen hasieran, alde batera utzita 2021ean ekonomia gehienak berriro ireki ondoren hornidura kateetan izan ziren arazo globalak. Hala ere, energia kostuen gorakadaren ondorioz, bigarren hiruhilekoan hazkundera ahuldu egin zen, eta hirugarren hiruhilekoan %3,1eko hiruhilekoen arteko jaitsiera handia izan zuen, urte sasoiaren eragina kenduta, eta sektoreak berreskuratu egin du 2023ko lehen hiruhilekoan.

Balio nominaletan izan duen %14,7ko hazkunderaren ondorioz, industriaren sektoreak 18.792 milioi euroko balio erantsia lortu zuen. Energiaren prezioen igoerak %4,2 garestitu zuen ekoizpena 2021ean, nagusiki urte horretako laugarren hiruhilekoan, eta gorakadak bizkortzen jarraitu zuen, eta deflatoea %9,7 igotzea eragin zuen. Prezioen bilakaera horren ondorioz, sektorearen hazkunde erreala murriztuta geratu zen.

EAEko industriaren BEGaren bilakaera
8. taula

Urte arteko aldakuntza tasak


	2017	2018	2019	2020	2021	2022
BEG bolumeneko indizea	2,5	2,0	1,4	-12,2	6,1	4,6
BEG uneko prezioetan	2,8	3,9	2,4	-13,2	10,5	14,7
Deflatoea	0,2	1,8	0,9	-1,2	4,2	9,7
Enplegua	2,9	1,7	0,8	-8,4	5,4	1,6
Produktibitatea	-0,3	0,3	0,6	-4,3	0,9	2,9
Industria produkzioaren indizea	4,9	2,7	1,9	-13,0	10,1	5,6
Industria jardueraren indizea	-3,1	-6,9	-7,1	-18,2	-8,1	-9,6

Iturria: Eustat eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa.


Manufakturen industriaren kasuan (sektorearen zatirik handiena da), pandemiaren ondoriozko ekoizpen mailaren jaitsiera handiagoa izan zen sektore osoarena baino, eta susperraldia motelxeagoa izaten ari da. Hain zuzen ere, 2022an, urteko igoera %4,3 izan zen, eta horrek esan nahi du 2019ko laugarren hiruhilekoarekiko distantzia 4,7 puntukoa dela oraindik, nahiz eta marjina 3,3 punturaino estutu den 2023ko lehen hiruhilekoan.

EAEko industria ekoizpenaren bilakaera ondasunen helburu ekonomikoaren arabera.
Urte arteko aldakuntza tasak
14. irudia


Ekipamendurako ondasunak




Bitarteko ondasunak



Kontsumoko ondasunak



Energia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten datuetan oinarrituta.

Sektorearen dinamika hori ondasunen xede ekonomikoaren arabera industria-produkzioaren indizearen azterketan egiazta daiteke. Eragiketa estatistiko horretan energiaren produkzioa da hazkunderik handiena izan duen adarra, %11,2koa, 2021ean %0,3 eskaseko hazkundera izan ondoren. Ekipamendurako ondasunen ekoizpenak dinamismo handiko portaera erakutsi zuen berriro, eta jarduera %9,3 handitu zen. Tasa horri aurreko urtean jasotako %11,3ko igoera eranstean bazaio, bilakaera profil oso positiboa izan duela hautematen da. Pandemiaren ondorioak txikiagoak izan ziren kontsumoko ondasunen ekoizpenean, 2021ean aurreko urtean galdutako maila berreskuratu eta gainditu baitzuen, eta, beraz, hazkunde erritmoa %4,4raino moteldu arren, hazkunderaren joera ona izaten jarraitzen du. Gainerako ondasunekin kontrastean, bitarteko ondasunen serie historikoak hazkunde joeraren ahultasuna adierazten du, eta hala egiaztatzen da 2022ko datuarekin, %2,0ko igoera soilik lortu zuelako, oraindik ez baita nahikoa pandemiaren aurreko balioak berreskuratzeko. Horrela, industria-produkzioaren indize osoaren hazkunde tasa %5,6 izan zen, 2019ko marka gaindituztat joz.

Industriako enpleguaren bilakaerak, zentzu batean, profil ezkor samarra izaten jarraitzen du. Izan ere, gutxi gorabehera 3.200 enplegu gehiago ditu, hau da, % 1,6ko hazkundera izan du, enplegu osoa %3,1 hazi zen bitartean. 2022ko kopuruekin, oraindik 4.100 lanpostu inguru falta dira 2019an zeuden 208.000 lanpostuak berreskuratzeko. Hala ere, ez da zifra negatiboa berez, kontuan hartuta balio erantsiaren hazkundera %4,6 izan zela, eta horrek zuzenean esan nahi du produktibitatea nabarmen handitu dela, %3 ingurukoa, EAEko ekonomian funtsezkoa den eta nazioartean lehiatzeko presio handiak dituen sektore batean.

Eraikuntzaren balio erantsia %2,0 handitu zen 2022. urtean, EAEko ekonomiaren batez bestekoa baino nabarmen gutxiago, eta sektorea 2019ko azken hiruhilekoko ekoizpen maila baino ehuneko 9,5 puntu beherago mantentzen da oraindik. Lehenik higiezinaren burbuilaren ezta eta ondoren Europako Banku Zentralak ezarritako interes tasa baxuek, eraikuntzaren sektorea neurri handi batean EAEko gainerako ekonomiatik banandutako dinamika batera eraman zuten hamarkada batean zehar. Pandemiaren ondoren, ekonomiak pixkanaka irekitzearekin batera, eraikuntzarako materialen garestitzeak eta, ondoren, gainerako kostuen igoera orokortuak kalte egin zioten sektoreari, eta horrek gainerako sektoreetan gertatu den errebotea eragotzi du, ekoizpen ziklo luzeago batek baldintzatuta, eta orain larriagotu egingo da interes tasen igoera garrantzitsuen ondorioz.

Sektoreko enpleguaren ikuspegitik, horrek 2021ean izan zuen bultzada galdu zuen, eta %1,7 gehitu zen. Tasa horrek esan nahi du lanaldi osoko 1.000 lanpostu baliokide inguru gehiago dituela

sektoreak eta guztira, 4.400 lanpostu inguru berreskuratu direla 2020an erregistratutako batez besteko balioetik.

Eraikuntza arloaren adierazle nagusiak
9. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
BEG bolumeneko indizea	1,6	4,0	2,4	-14,4	4,5	2,0
BEG uneko prezioak	2,4	5,9	3,7	-13,7	6,8	5,0
Deflatorea	0,8	1,9	1,3	0,8	2,2	3,0
Enplegua	-0,1	3,7	4,1	-8,7	6,2	1,7
Produktibitatea	1,7	0,2	-1,7	-7,0	-1,5	0,3
Higiezinen transakzioak	11,6	10,8	2,1	-12,5	22,2	22,6
Etxebizitzen prezioen indizea	5,2	5,4	4,3	2,3	2,1	6,4
Hasitako etxebizitzak	-29,0	58,1	-2,8	-29,4	-3,3	13,5
Amaitutako etxebizitzak	42,2	11,2	-4,3	-0,6	-1,4	6,6
Bisatuak. Etxebizitzen kopurua	20,2	11,6	2,1	10,2	14,9	-0,8
Eraikuntzaren koiuntura indizea	5,4	12,3	8,7	-8,1	7,8	8,3

Iturria: Eustat, INE eta Garraio, Mugikortasun eta Hiri Agenda Ministerioa.

Zerbitzuen sektoreak gidatu zuen EAEko ekonomiaren hazkundera 2022an, bai bere hazkunde tasa sektore nagusi guztien artean handiena izan zelako, bai BPGan pisu handiena duen sektorea delako. Zerbitzuen balio erantsia ehuneko 4,7 puntu igo zen, eta balio izan zuen urteko bigarren hiruhilekoan 2019ko laugarren hiruhilekoko ekoizpen maila gaintzeko. Horrela, urtea amaituta, sektorearen produkzioa 2022an 2019koa baino %2,1 handiagoa izan zen, eta, balio nominaletan, 52.912 milioi euroko balioa lortu zuen. Sektorearen balantze onaren zati bat deflatorearen hazkundera azal dezake (%2,9); serie historikoari dagokionez handia izan arren, ekonomia osoarena baino nabarmen txikiagoa da, eta industriarenetik argi eta garbi bereizten den joera du. Horrela, nabarmendu behar da 2022ko azken hiruhilekoan jada deflatorea %4,5ean kokatu zela urte arteko hazkunderari dagokionez, eta %2,3an hiruhileko artean, sektore horretan ere inflazioak eragina duela adierazten baitute.

Zerbitzu arloaren adierazle nagusiak
10. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
BEG bolumenen indizea	2,9	3,1	2,5	-7,9	5,8	4,7
BEG uneko prezioak	3,8	4,2	3,7	-7,4	6,8	7,8
Deflatorea	0,8	1,0	1,2	0,5	0,9	2,9
Enplegua	2,1	2,3	1,6	-5,4	6,2	3,7
Produktibitatea	0,8	0,8	1,0	-2,7	-0,3	1,0
Bidaiarien gualdiak	2,6	7,2	3,7	-61,5	73,4	54,2
Batez besteko egonaldia (egunak)	1,92	1,97	1,97	1,95	1,92	1,93
Plazen betetze maila (ehunekoa)	54,2	56,8	57,4	32,8	41,1	53,9
Zerbitzuen koiuntura indizea	3,0	1,1	0,6	-16,8	9,5	11,4

Iturria: Eustat.

Merkataritza, ostalaritza eta garraioa biltzen dituen azpisektoreak hazkunde tasa altua lortu zuen berriro, %10,7ko igoera izan baitzuen, 2021ean %11,8ko hazkundera jaso ondoren. Horrela, jarduera talde hori, pandemiari aurre egiteko ezarritako murrizketek gehien kaltetu zutena, susperraldiaren atarian geratu zen, eta, azkenean, 2023ko lehen hiruhilekoan lortu du. Informazio estatistiko erabilgarriaren arabera, hotel establezimenduetako gualdien kopurua 6,4 milioitik gorakoa izan zen, hau da, aurreko urtekoak baino %54,2 gehiago eta 2019an baino 200.000 gehiago. Hain zuzen ere, erregistro historiko altuena bihurtu da. Halaber, plazen araberako okupazioa oraindik ez da iritsi aurreko urteetako mailara (2017, 2018 eta 2019), eta, horri esker, oraindik ere ibilbide luzeagoa dago jarduera horien hazkunderan.

Zerbitzuen koiuntura indizearen arabera (%11,4 igo zen 2022an), ostalaritza (%23,2) izan zen hazkunderik handiena eskuratu zuen jarduera, eta ondoren garraioa eta biltegiatzea (%18,3). Zifra horiek argi eta garbi kontrastatzen dute merkataritzaren hazkunde neurritsuagoarekin (%3,0), bai handizkakoan (%4,8), bai txikizkakoan (%2,9), eta negatiboa izatera iristen da ibilgailuen salmentaren eta konponketaren kasuan (-%7,4), 2019tik daraman dinamika negatiboa iraultzea lortzen ez duena, neurri batean fabrikaziorako nahiko mikrotxipik ez zegoelako.

Gainerako zerbitzuak izeneko taldea osatzen duten jarduerak, Euskadiko BPGan pisu handiena duen atala baita, leundu egin zuten beren hazkunde tasa 2021eko %4,0tik 2022ko %2,8ra, eta hori, nahiz eta EAEko ekonomia osokoa baino erritmo apalagoa izan, datu positibotzat jo behar da, osasun murrizketetan eragin txikiagoa izan zuten jarduerak zirelako eta, beraz, gainerako jarduera ekonomikoek baino tarte txikiagoa izan zutelako suspertzeko bidean. Azkenik, sektore publikoarekin lotutako jarduerak %1,8 handitu ziren. Jarduera horiek funtsezko zerbitzuak eta osasun zerbitzuak barne hartzen dituzte eta ez zuten beren ekoizpena murriztu pandemiaren ondorioz. Zerbitzuen koiuntura indizeko jardueren banakapenak erakusten du hazkundera handiagoa izan zela jarduera administratiboetan eta zerbitzu osagarrietan (%8,1), eta informazioak eta komunikazioek ere dinamismo maila handia erakutsi zutela (%4,6); jarduera profesional, zientifiko eta teknikoek, ordea, atzera egin zuten (-%1,6).

Zerbitzuen BEGaren bilakaera azpisektoreka
11. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Zerbitzuak guztira	2,9	3,1	2,5	-7,9	5,8	4,7
Merkataritza, ostalaritza eta garraioa	4,1	4,3	2,2	-20,4	11,8	10,7
AA. PP., hezkuntza, osasuna eta gizarte zerbitzuak	2,2	1,8	3,2	1,1	3,1	1,8
Gainontzeko zerbitzuak	2,6	3,0	2,4	-4,3	4,0	2,8


Iturria: Eustat.

Zerbitzuen sektoreko enpleguaren bilakaerak oso profil ona erakusten jarraitzen du, %3,7ko igoerarekin eta 26.000 lanpostu ingururekin. 2019ko enplegu mailaren berreskuratzea 2021ean gertatu zen, eta 2022an erreferentzia maila hori baino %4,2 gorago dago, hau da, lanaldi osoko 29.000 lanpostu baliokide baino gehiago dauzka. Horrela, sektoreko lanpostuen kopurua 722.900 ingurukoa izan zen, hau da, Euskadiko enplegu osoaren %72,4 biltzen du.


Barne eskariak 2,8 puntu ekarri zizkion EAEko ekonomiaren hazkunderari. Kanpo sektoreak, bestalde, gainerako 1,6 puntuak eman dizkio Euskadiko BPGaren hazkunderari, azken hamarkadako erregistroetatik urrun, normalean hamarren gutxi batzuetakoa baita, positiboan edo apur bat negatiboan, egiten duen ekarpena. EAEko ekonomia eta bere bazkide komertzial gehienak erabat ireki ondoren, kanpo merkataritza suspertzen ari den seinale da hori.

Barne eskariaren osagaien hazkundera. Urte arteko aldakuntza tasak
15. irudia

Barneko azken kontsumoa



Kapital eraketa gordina



Iturria: Eustat.

Barne eskariaren hazkundera (%2,7) moteldu egin zen azken kontsumoaren hazkunde apalaren ondorioz (%2,2), Ukrainako gerra hasi ondorengo KPIaren igoera handiaren ondorioz. Zehazki, familien gastua kontsumoan %3,0 igo zen termino errealetan, iazko bigarren seihilekoan hazkunde erritmoa argiago galgatu ondoren. Hala, iazko hirugarren hiruhilekoan %1,8ko beherakada izan zuen hiruhileko artean, eta urteko hirugarren hiruhilekoaren eta azken hiruhilekoaren artean soilik %0,9 berreskuratu zuen.

Kontsumoko prezioen indizeak %8,0 egin zuen gora 2022an, eta horren isla izan zen kontsumo pribatuaren deflatoarearen hazkundera, batez ere urteko lehen bi hiruhilekoetan, eta hori izan zen kontsumo pribatuaren hazkundera geldiarazi zuena. Horrela, unean uneko prezioetan, familien kontsumoaren hazkundera %9,7 igo zen, hau da, ia 4.500 milioi euro gehiago. Hala ere, osagaiak pandemiak geroztik izan duen bilakaera eskasa izan da, nahiz eta lan merkatuari buruzko adierazleetan aurrerapen hain ona izan, 2022an oraindik familien kontsumoa 2019ko maila baino 4,4 puntu beherago baitzen. Hiruhilekoko kontabilitatearen arabera, alde hori 3,8 punturaino murriztu da, 2023ko lehen hiruhilekoa 2019ko azkenekoarekin alderatuta.

Kontsumo publikoaren bilakaera zertxobait negatiboa izan zen (-%0,4) aurreko urteekin alderatuta, urte horietan sektore publikoa funtsezkoa izan baitzen pandemiari aurre egiteko. Halaber, ekonomia suspertzeko orduan eragile garrantzitsua izan da, kontsumo publikoaren maila, termino errealetan, 2019ko datua baino %6,6 gorago kokatu baitzen eta, termino nominaletan, ia 1.900 milioi euro gehiago dira.

Errenten adierazleen bilakaera
12. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Soldatapekoen ordainketa	3,2	3,4	3,7	-4,5	3,5	-
Urtean adostutako soldata igoera	1,5	1,9	2,0	1,7	1,2	4,1
Enplegua	2,1	2,3	1,5	-6,2	5,9	2,7
Pentsioen kopurua (*)	1,3	1,4	1,3	0,4	0,8	0,5
Batez besteko pentsioa (*)	2,0	2,7	4,9	2,0	2,2	5,3
PFEZren diru bilketa	6,0	5,4	5,7	-1,1	8,2	6,3
Banku arteko int. tasa (urte 1erako euriborra)(**)	-0,1	-0,2	-0,2	-0,3	-0,5	1,1
KPI (urte arteko batez bestera)	2,0	1,6	1,0	-0,1	3,1	8,0

(*) Hilabeteko lehen eguneko datuen arabera kalkulaturako urteko batez besteak. (**) Hilabeteko batez bestekoekin osatutako urteko batez bestekoak.

Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina, Eustaten, Inklusioa, Gizarte Segurantza eta Migrazioak Ministerioaren, Lan Harremanen Kontseilua, INEren eta Espainiako Bankuaren datuetan oinarrituta.

Kapital eraketa gordinak aurreko urteko aurrerapen bide positiboarekin jarraitu zuen 2022an ere, %4,4 igo baitzen, nahiz eta inbertsioaren deflatorearen hazkundera handia izan (%6,5), energiaren eta gainerako lehengaien prezioen igoerak eraginda. Ekipamendurako ondasunetan egindako inbertsioak hazkunde bikaina izan zuen, %6,9koa, eta aurreko urteko %10,9ko hazkundearekin batera, ekipo inbertsioaren maila 2019koa baino %4,7 gorago utzi zuen. Gainerako kapital eraketa gordinaren hazkundera (%2,7) ez da hain handia izan, eraikuntzaren sektorearekin lotuago baitago azken hori eta sektore horren antzeko joera erakusten baitu, gerrak eragindako ziurgabetasunarekiko eta kostuen eta interes-tasen gorakadarekiko sentikorra baita.

Urteko kontabilitateak bezala, inbertsioko adierazleek ere ekipamendurako ondasunen hedapen profila jasotzen dute. Ondasun mota horren IPIaren hazkundera gain (%9,3), bere inportazioak

%21,0 hazi ziren, bigarren eta hirugarren hiru hilekoetan izandako %25 inguruko igoerak nabarmenduz. Industria produkzioaren indizea gehiago banakatuz gero, garraio materialaren indizearen produkzioaren aurrerapena ikus daiteke, %10,3 hazi baita, eta, ildo beretik, makineriaren eta ekipoaren indizea %11,0. Eraikuntzako adierazleek datu desberdinak eskaintzen dituzte, baina positiboak dira zentzu orokorrean: higiezinaren transakzioen kopurua %22,6 igo izana interes tasa baxuen berehalako amaieraren ondorio izan zitekeen, baita hasitako etxebizitzaren %13,5eko igoera ere, 2021ean eraikuntzako materialen prezioen gorakadak hasierako erabakiak 2022ra arte atzeratu zituelako eta, era berean, etxebizitzaren amaiera 2021etik 2022ra aldatu zitekeelako.

Egindako kontsumoaren adierazleen bilakaera
13. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Kontsumo pribatua (bolumen indizea)	3,1	3,0	1,7	-12,1	5,6	3,0
Kontsumo publikoa (bolumen indizea)	2,1	1,2	3,1	2,9	3,9	-0,4
IPI kontsumo ondasunak. EAE	4,6	5,5	3,1	-6,5	11,9	4,5
IPI kontsumo ondasunak. Estatuak	0,9	-0,7	1,5	-7,5	7,7	4,1
Automobilien matrikulazioa	8,2	6,3	-6,1	-22,0	-19,7	-8,8
Txikizkako merkataritzaren indizea	1,7	0,7	0,9	-4,9	3,5	2,9

Iturria: Eustat, INE eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Kapital eraketa gordinaren eta bere adierazleen bilakaera
14. taula

Urte arteko aldakuntza tasak

	2017	2018	2019	2020	2021	2022
Kapital eraketa gordina (bol. ind.kateatua)	3,1	4,9	3,3	-12,1	6,0	4,4
- Ekipamendurako ondasunak	3,5	4,5	3,0	-11,8	10,9	6,9
- Gainontzeko inbertsioa	2,9	5,1	3,4	-12,3	3,1	2,7
IPI ekipamendurako ondasunak:	2,4	4,9	2,2	-12,4	13,3	9,3
- IPI garraio materiala	5,4	4,7	1,0	-15,1	10,5	10,3
- IPI makineria eta ekipamendua	-0,4	4,5	1,3	-7,0	14,8	11,0
Ekipamendurako ondasunen inportazioak	4,8	4,0	5,6	-13,2	16,6	21,0
Zamaketarako ibilgailuen matrikulazioa	8,6	18,1	-8,7	-22,5	7,0	-13,5

Iturria: Eustat eta Trafiko Zuzendaritza Nagusia.

Prezioen igoeraren ondorioz, merkantzien merkataritzak, eskualde artekoak, erregio barrukoak zein nazioartekoak, hazkunde tasa garrantzitsuak izan zituen 2022an, pandemiaren aurreko mailak aise gaindituz eta, kasuren batean, errekor berri bat ezarriz. Horiek horrela, C-interreg datu basearen arabera, Euskadiko ondasunen (zerbitzurik gabe) merkataritza fluxuak Estatuko gainerako lurraldeekin (eskualde arteko merkataritza) eta baita hiru euskal lurraldeen artean ere (eskualde barruan) aztertzeke aukera ematen duena, gainerako autonomia erkidegoetara egindako ondasun esportazioak %41,0 igo ziren eta 20.700 milioi eurora hurbildu ziren, 2008tik izandako erregistrorik handiena baita.

Erkidegoen arteko eta erkidegoaren barneko ondasunen fluxua EAEn
15. taula

Urte arteko aldakuntza tasak eta milioi euro

	2017	2018	2019(B)	2020(A)	2021 (*)	2022(*)	Milioi € 2022 (*)
Erkidegoen arteko merkataritza							
Esportazioak	4,9	4,2	1,1	-12,4	12,3	41,0	20.655
Inportazioak	5,5	6,4	7,1	-16,3	23,4	15,1	20.488
Saldoa guztira (milioi €)	-977	-1.363	-2.338	-1.378	-3.153	163	163
Erkidegoen barneko merkataritza							
Totala	7,1	8,3	-0,3	-12,7	13,2	33,7	15.582

(B) Behin-behineko datuak. (A) Aurrerapena (*) Aurreikuspena.


Iturria: C-interreg proiektua.

Beste erkidego batzuetatik ekarritako inportazioak %15,1 gehitu ziren eta 20.480 milioi eurotik gorakoak izan ziren, orain arte ezagutu ez den kopurua baita. Horri guztiari esker, zazpi urteko saldo defizitarioaren ondoren, 2022an erkidegoen arteko merkataritza superabitaz hitz egin zen berriro, txikia izan arren. Eskualde barruko merkataritzari dagokionez, 15.852 milioi eurotik gorako merkataritza trukeak egin ziren, beste maximo bat ezarriz.

Kuota esportatzailea, EAeko atzerrirako salmenten partaidetza munduko salmenta guztiekiko neurtzen duena, pixka bat suspertu zen, eta horrek pandemia aurreko mailetara hurbiltzen du. Hobekuntza hori euskal esportazioen dinamismo handiagoak eragin zuen (%26,8), munduko esportazioek baino erritmo biziagoan egin baitzuten gora (%11,5). Aipagarria da Espainiak, aldi berean, merkatu kuota galdu zuela eta seigarren urtez jarraian parte hartze txikiagoa izan zuela.

Inportazioan, joera bera hauteman zen. EAEko erosketak munduko erosketak baino indartsuago hazi ziren, eta inportatutako kopuruak covidaren aurreko mailetan kokatu ziren berriro. Nolanahi ere, termino errealetan aldakuntzak oso txikiak dira oraindik, eta 2008an erregistratutako maximoetatik urrun daude oraindik.


EAEko ondasunen esportazio eta inportazioen merkatu kuota munduko merkataritza guztiarekiko
16. irudia



Iturria: Ekonomia eta Plangintza Zuzendaritzak egina Munduko Merkataritza Antolakundearen (MMA) eta Eustaten datuetan oinarrituta.

Nahiz eta Ukrainako gerrak, tentsio geopolitikoek, pandemiaren azken ukituek eta inflazioaren gorakada korapilatsu eta iraunkorrak nazioartean markatutako koiuntura zaila izan, EAEko kanpo merkataritza hazkunde ekonomikoaren funtsezko pieza izaten jarraitu zuen. Zehatzago adierazita, Eustatek argitaratutako lehen kalkuluen arabera, 2022an EAEko salgaien esportazioek 32.538 milioi euroko balioa izan zuten, serie historikoko erregistrorik onena, eta nabarmen gainditu zituzten 2018ko 25.788 milioiak. Zenbateko horrek %26,8ko urte arteko igoera ekarri zuen, 2021arekin alderatuta. Gorakada horren zati handi bat prezioen igoerak (%8,3) eragin zuen, tonatan egindako salmenta %13,9 hazi baitzen. Tasa horrek berekin dakar 15.161 milioi tona euskal produktu baino gehiago saltzea, kopuru handia dena, baina oraindik urrun dagoena 2015ean saldutako ia 16.400 milioi tonetatik.

**Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (I)
17. irudia**




Iturria: Eustat. 2022ko datuak behin-behinekoak dira.

Inportazioak, berriz, 29.411 milioi eurokoak izan ziren. Kopuru horrek %39,7ko urte arteko hazkundera ekarri zuen 2021aren aldean. Kasu horretan ere, inportazioak gehiago hazi ziren prezioen igoeraren ondorioz, batez ere produktu energetikoengatik eta lehengaiengatik, horien erosketa %88,0 hazi baitzen eta prezioa %31,0. Baliabide energetikorik eza eta petrolioaren eta gasaren garestitzea izan ziren hazkunde handi horien arrazoi nagusiak. Tonatan, inportazio energetikoek ere

gorakada nabarmena izan zuten (%7,7); izan ere, bi urtez etengabe behera egin ondoren, garraioaren eta industriaren suspertzeak, bai eta erreserben hornikuntza beharrak ere, Errusiaren mendekotasun energetikoa murrizteko, Bruselak adostutakoarekin bat etorritz, atal horren bilakaerari mesede egin zion. Azkenik, barne eskariaren susperraldia sendotu izanak ere asko lagundu zuen erosketen guztizkoaren errekor berri hori kontabilizatzen.

Inflazioaren hazkundeak talde guztiei eragin zien, ez soilik energiaren atalari. Ez-energetikoen artean, prezioak %7,4 igo ziren, ia tonatan bezalaxe; eurotan, berriz, %22,2 handitu ziren. Talde horretan ere marka berria lortu zen, urte osoan ia 29.700 milioi euro saldu baitziren energiagiz bestelako produktuetan.

Esportazio eta inportazioen alderaketa euro, tona eta prezioetan. Urte arteko aldakuntza tasak (II)
18. irudia



Iturria: Eustat. 2022ko datuak behin-behinekoak dira.

Metalaren manufaktura industriak (%27,3), non gehikuntzarik handienak burdinaren, altzairuaren eta nikelaren manufaktura izan zituzten, eta ibilgailu automobilen eta automobilgintzarako osagaien fabrikazioak (%23,3) esportazioetatik tiraka jarraitu zuten. Azpimarratzekoa da, atal honetan, salmentek behera egin dutela hamar pertsona baino gehiagoko turismoen atalean (-%2,7), eta jaitsiera hori Gasteizko Mercedesen lantegiko produkzio geldialdiei egotz dakiekeela, Asiatik

datorren hornidurarik ezagatik, batez ere 2022ko lehen hilabeteetan. Hala ere, hazkundeak positiboak izan ziren talde handi guztietan eta salmenta maximoak zenbatu ziren guztietan. Batez beste, esportazioak 2019koak baino %27,7 handiagoak izan ziren, eta sektore guztiek gaintitu zuten pandemiaren eragina, oro har.

Eremu geografikoen arabera, EAEko esportazio gehienak herrialde garatuetara bidali ziren, eta herrialde horietan guztizkoaren %84,6 bildu zen, aurreko urteetako ehunekoaren antzekoa, EAEko produktuak merkatu horietan finkatu izanaren isla. Herrialde talde horri egindako salmentak %27,1 gehitu ziren, batez bestekoaren gaintetik, eta garapen bidean dauden herrialdeetara bidalitakoak, berriz, %25,2.

EAEren eta atzerriaren arteko merkataritzaren helmuga
16. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2017	2018	2019	2020	2021	2022(*)	2022 (*)
Esportazioak	11,5	7,0	-1,2	-17,1	23,2	26,8	32.538,4
ELGE	11,9	8,0	-1,2	-15,3	23,9	27,1	27.538,2
Europar Batasuna 27	10,3	7,2	-1,2	-20,4	38,8	27,6	20.824,0
Alemania	13,0	1,2	0,9	-5,5	12,9	22,2	5.000,4
Frantzia	4,0	5,0	0,3	-15,1	24,0	20,3	4.957,8
Erresuma Batua	16,1	14,5	35,9	-42,6	25,5	17,0	1.983,5
Italia	6,0	12,8	-5,9	-6,6	24,7	29,8	1.753,4
AEB	18,4	16,5	-15,5	-23,6	18,2	41,9	2.258,2
Japonian	-29,9	-13,0	11,9	5,0	19,5	0,5	157,0
Errusia	23,3	6,4	14,9	-0,3	-12,7	-51,5	122,0
Txina	2,3	-12,7	5,6	-11,8	52,7	7,0	711,9

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat.

Zehatzago adierazita, Europar Batasuna izan zen EAEko esportazioen jomuga nagusia eta esportatutako guztiaren %64,0 bereganatu zuen, 2003tik ez zen ehuneko hori jasotzen. Esportatutako produktuei dagokienez, garraio materiala izan zen talde nagusia, bereziki ibilgailu automobilak (ingurura esportatutako guztizkoaren %24,0), eta, 2022ko lehen erdian erdiekoale eta

beste bitarteko ondasun gutxi izan arren, urteko balantzean %21,0 hazi ziren. Izan ere, Euskadin fabrikatutako ibilgailu guztien %70 baino gehiago esportatu ziren kontinente zaharrera, eta horrek ia 5.000 milioi euroko salmentak ekarri zituen, parekorik gabeko erregistroa. Metalurgiari eta haren galdaketari lotutako atalen bilakaera ere bikaina izan zen (%27,7), nahiz eta talde handi guztiek aurrekaririk gabeko salmenta-mailak zenbatu zituzten.


Egitura hori, aldaketa txiki batzuekin, errepikatu zen Europako bazkide nagusietan. Horrela, Alemaniak berriro ekin zion EAeko esportazioen jomuga nagusi izateari, Frantziak baino 42 milioi euro gehiago erosi zuelako, eta Frantzia bigarren postuan geratu zen. Alemaniako merkatura esportatutako produktu nagusia ibilgailu automobilak izan ziren (%20,8), eta 2022an 2.400 milioi euro inguruko balioa izan zuen. Izan ere, Alemania da EAeko automobilerik mundu mailan duten helmuga nagusia, eta Euskadik saldutako ibilgailu guztien %41,7 hartzen ditu. Manufakturen eta fundizioaren salmentak ere bilakaera oso ona izan zuen.

Frantziarako esportazioak %20,3 gehitu ziren, batez ere metal arrunten eta beren manufakturen salmentak bultzatuta, %22,7 hazi baitziren. Alemaniako merkaturak ez bezala, Frantziakoa dibertsifikatuago dago, eta, beraz, ibilgailu automobileren salmentaz gain, makinen eta aparatuen eta plastikoen eta kautxuaren esportazioek ere garrantzi handia dute. Alemaniako merkaturak bezala, Frantzian ere hazkunde handiak izan dira, energiaren sektorea barne, bi urte uzkurtuta baitzaramatzen.

AEBetako merkaturak oso portaera ona erakutsi zuen eta esportatutako balioa %41,9 handitu zen aurreko urteko emaitzarekin alderatuta, hau da, 2.258 milioi eurotik gora balio zuten produktuak saldu ziren. Metal arrunten eta horien manufakturen salmentaren bultzada azpimarragarriak eragin zuen hori, aurreko urteko balioa bikoiztu baitzuten (%121,0). Makinek eta aparatuek ere lagundu zuten emaitza on horretan, pisu handieneko bigarren taldea izanik, nahiz eta igoera ez zen hain lehergarria izan (%5,6). Azkenik, produktu mineralak ere aldakuntza tasa nabarmena eskuratu zuten (%19,3).

Bereziki aipatzekoa da Herbehereetako merkaturako salmenten hazkunde handia, esportazioen laugarren helmuga nagusia izan baita, Erresuma Batuen eta Italiaren aurretik. Kasu horretan, erregai mineralen salmenta nabarmenak, zehazki petrolio olio finduarenak, %231 hazi da eta esportatutako guztiaren %35 da, eta horrek azaltzen du, neurri handi batean, gorakada esanguratsu hori. Metal arruntak izan ziren intentsitatez hazi zen beste talde handia, %20,0, eta esportazio guztiei merkatu horretan 2.010 milioitik gorako salmenta egitea ahalbidetu zien.

Atzerriarekiko euskal merkataritzaren sailkapena
17. taula



Iturria: Eustat. 2022ko datuak behin-behinekoak dira.

Merkatu tradizionaletako salmentak alde batera utzita, EAEko eragileek beren zifrak hobetu zituzten Brasilgo merkaturako (% 27,4, makinaren eta aparatuen salmentaren bultzada handiari esker), Txinakoan (%7,0) eta nahiko geldi mantendu ziren Japoniakoan (%0,5). Aitzitik, Errusiako merkaturako salmentak uzkurdu egin ziren bigarren urtez jarraian. Mendebaldeko ekonomiek herrialde horri ezarritako zigorrek beren merkaturak kolapsatu zuten berriro, eta EAEko esportazioak herrialde horretara erdira murriztu zituzten (-%51,5). Talde guztiek, nekazaritzako produktuek eta mineralek izan ezik, uzkurdura handiak izan zituzten, eta bien hondar pisua ez zen nahikoa izan gainerakoen gainbehera konpentsatzeko.

Lehenago ere adierazi den bezala, atzerritik ekarritako ondasunen inportazioen hazkundea are dinamikoagoa izan zen esportazioena baino (%39,7 eta %26,8, hurrenez hurren). Bultzada handi hori herrialde garatuera (%32,5) eta gorabidean daudenetara (%54,5) hedatu zen. Bi kasuetan, prezioen garestitzeak baldintzatu zuen igoera, batez ere energetikoenak, eta eragin handiagoa izan zuen garatzeko bidean zegoen multzoan. Horren arrazoia da Euskadik erositako energiaren %58,9 inguru horretatik datorrela. Are gehiago, 2022an, soilik Brasilek, Errusiak, Libiak, Kazakhstanek, Irakek eta Angolak hornitu zuten euskal eragileek erositako energiaren gutzitzkoaren %40, eta, beraz, energiaren prezioaren igoera garrantzitsuan oinarrituta, normala da gorabidean dagoen eremutik datozen inportazioen aurrerapena indartsuagoa izatea.

EA Eren eta atzerriaren arteko merkataritzaren jatorria
18. taula

	Urte arteko aldakuntza tasak						Milioi €
	2017	2018	2019	2020	2021	2022(*)	2022(*)
Inportazioak	19,9	9,5	-1,6	-21,3	34,1	39,7	29.411,5
ELGE	17,1	5,3	1,1	-17,5	26,7	32,5	18.835,6
Europar Batasuna 27	8,9	6,3	0,7	-13,4	-13,4	22,5	13.426,4
Alemania	6,7	5,1	3,4	-12,2	17,3	21,5	3.770,1
Frantzia	12,9	5,2	-7,9	-10,0	28,4	21,8	2.465,8
Erresuma Batua	60,6	-42,1	-17,8	-18,7	32,5	42,5	965,6
Italia	8,2	7,7	-3,8	-11,5	33,7	15,7	1.325,5
AEB	19,5	14,0	85,6	-39,6	20,2	207,0	2.093,9
Japonian	6,9	-8,9	-0,6	-31,4	37,4	38,8	261,9
Errusia	-44,0	-38,5	192,1	-50,1	144,7	-41,0	813,2
Txina	0,5	9,9	16,1	-6,7	33,4	31,0	2.166,1
Brasil	98,3	126,1	-69,6	28,1	83,8	251,0	1.597,3

(*) Behin-behineko datuak.

Iturria: Eustat.

Energiaz bestelako produktuen inportazioa, bestalde, %26,3 hazi zen. Hemen ere prezioen igoera funtsezkoa izan zen inportazioaren epigrafe asko balio gorenetaraino bultzatzeko. Izan ere, nekazaritzako produktuek, metal arruntek, garraio materialak eta plastikoaren eta kautxuaren sektoreak, guztiak ere lehengaien prezioaren igoerak bereziki eragindako sektoreak baitira, euroetan aurrekaririk gabeko balioak izan zituzten, tonatan izandako bilakaerak baieztatu ez zituenak, guztietan murriztu baitzen.

Euskal hornitzaile nagusien artean, Alemaniatik etorritako inportazioak %21,5 hazi ziren, Frantziatik etorritakoak %21,8 eta Txinatik etorritakoak, berriz, %31,0. Horrek esan nahi du herrialde horrek lehen aldiz 2.166 milioi euro baino gehiago saldu dizkiela EAEko eragileei produktuetan eta hirugarren postua sendotu duela. Lehenengo hiruren ondoren AEBak eta Brasil kokatu ziren, biak goiko posizio horietara bultzatuak energiaren salmentagatik, Errusiatik herrialde hauetara desbideratu zena zigorren ondorioz. Izan ere, EAEko energia mendekotasuna hain da handia, ezen,

euskal eragileek produktu energetikoak erosteko erabiltzen dituzten herrialdeen arabera, hornitzaileen buruan jartzen baitira.

Ondorioz, EAEko kanpo sektoreak 2022an lortu zuen Ukrainaren inbasioaren eta inflazio handiaren ondoriozko asaldurak saihestea eta inoizko salmentarik handienak kontabilizatzea, 32.538 milioi eurotik gorakoak, 2019an baino 7.000 milioi gehiago, alegia. Egia da prezioen igoerak maximo berri hori gorantz baldintzatu zuela, baina analisisia tonatan egiten bada, horrek ere oso emaitza positiboa erakusten du. Hain zuzen ere, saldutako 15.161 milioi tonak ez dira serie historikoko erregistrorik handiena, baina bost handien artean dago kokatuta, eta covid-19aren aurreko mailekiko 795 milioi tonako hobekuntza dakar. Bazkide komertzial nagusiei dagokienez, Euskadiko esportazio mailek dinamismo handiagoa erakutsi zuten euroaren eremuan erregistratutakoek baino (%21,0), eta are handiagoa Italiakoak (%19,9), Frantziakoak (%19,1), AEBetakoak (%18,2) eta Alemaniakoak (%14,1) baino.


Era berean, barne eskariaren sendotasunak guztizko inportazioak maximo berrietara bultzatu zituen, baina esportazioen kantitateen azpitik, eta, beraz, beste superabita saldo bat lortu zen, oraingoan 3.127 milioi eurokoa. Saldo ez-energetikoa 8.800 milioi eurora igo zen, %13,5eko igoera 2021arekin alderatuta.

Emaitza onak izan arren, Euskadik ahultasun nabarmena erakusten jarraitzen du, eta hori duen mendekotasun energetiko handia da. Eustaten datuek hori berresten dute; izan ere, epigrafe horren salmenta halako hiru erosi zen atzerrian. Zehazkiago adierazita, 2022an 8.586 milioi eurotik gorako balioa zuten produktu energetikoak inportatu ziren, esportatutako 2.851 milioien aldean. Horregatik guztiagatik, 5.735 milioi euroko defizit komertzial energetikoa sortu zen, orain arteko handiena.


Kontrapuntu gisa, Euskadi Europako ekonomiarik irekienetako bat da, 5.300 enpresa esportatzaile baino gehiago ditu eta bost kontinenteetan ezarrita dago, bere lurraldean egoitza duten enpresa lider globalekin, eta horrek Europako erreferente teknologiko bihurtzen du. Nazioartekotze gero eta handiago horren eta lehiakortasunaren ondorioz, Euskadik posizio ona du bere merkataritza bazkide nagusiekin. Hala baieztatzen du estaldura tasak, 2021eko mailekin alderatuta ia hamabi puntu murriztu arren, %110,6an kokatu baitzen. Erresuma Batuen eta Frantziaren aurrean duen egoera nabarmendu behar da, horiekiko estaldura tasa %200,0tik gorakoa izan baitzen. Era berean, irekiera maila 145,6 punturaino igo zen, 2000. urteaz geroztik lortutako erregistrorik onena.

EAEko kanpo merkataritza. Adierazle nagusiak
19. irudia


Esportazioak. Milioi euro




Inportazioak. Milioi euro



Saldoak. Milioi euro



Ondasun eta zerbitzuen irekiera maila



Iturria: Eustat EAEko datuentzat eta Datacomex eta Eurostat. 2022ko datuak behin-behinekoak dira.

2023ko lehen hilabeteetan, EAEko esportazioen bilakaerak goranzko joera bizkorrarekin jarraitu du, eta martxoan hilabete bakarrean saldutako 3.300 milioi euroak gairatzera iritsi da, aurrekaririk gabeko zenbatekoa. Apirilean, ordea, bide hori eten egin zen. 2021eko urtarrietik lehen aldiz, pandemiak eragindako murrizketek indarrean jarraitzen zutenean, EAEko kanporako esportazioak murriztu egin ziren.

